



Udaberriko
lore eta
landareen
azoka
Seguran

BioSasieta: Zaborretik elektrizitatera

Pikuondo
etxe okupatua
Beasainen

Larunbat
gauetako
autobus
zerbitzu berria



Giokela, Okel Garbia Muturretik Buztanera

LUIS MARI Harategia
Kale Nagusia, 15
IDIAZABAL

Giokela, Berme Osoko Okela

Ez guk, Certicar-ek ziurtatua




Giokela



GURE KALITATEA

SAGARDOA TXOTXETIK GOIERRIN



BEGIRISTAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Haragia eta ogia jartzen ditugu
Egunero zabalik 8etatik 11etara
Igandeetan itxita
Eguerdietan larunbatetan bakarrik

☎ **943 65 28 37**

IKAZTEGIETA

KORTA

☎ **943 88 71 86**

GABIRIA

OTATZA

TOLARE SAGARDOTEGIA

Aste guztian zabalik, asteazkena ezik
Larunbat eta igandeetan eguerdiz ere ire-
kita (asteaz zehar eguerditan enkarguz)

Txotx denboraldia 18tik zabalik

☎ **943 80 17 57**

ZERAIN



aulia

TOLARE

SAGARDOTEGIA

☎ **943 80 60 66**

LEGORRETA

Olagi



Urte guztian zehar zabalik

☎ **943 88 77 26**

ALTZAGA

AMEBI

**TXOTX
DENBOTALDIA
12AN IREKIKO
DUGU**



**ASTELEHEN
GAUETAN ITXITA**

☎ **943 16 25 23**

Sagardotegia

**Zubierreka, 9
LAZKAO**

ZALBIDE

**TOLARE
SAGARDOTEGIA**

Urtarrilaren 25ean irekiko dugu
Astegunetan 19:00etatik aurrera
Asteburuetan eguerdi eta iluntzean

☎ **943 65 21 76**

ABALTZISKETA



TXIMISTA

sagardotegia

Egunero zabalik, eguerdi eta gauean

Gudarien Etorbidea

☎ **943 88 11 28**

ORDIZIA

URBITARTE

TOLARE

SAGARDOTEGIA

Egunero
zabalik



Zatoz lagunarteko
giroaz gozatzera!

☎ **943 18 01 19**

ATAUN



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

☎ **943 88 20 49**

OLABERRIA

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Aitziber Murua, Aimar Maiz, eta Joxean Auzmendi.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako

Kultura Sailak,

Gipuzkoako Foru Aldundiak

eta

GOIERRIKO UDALEK

diruz lagundutako

aldizkaria



Fotoetxe Valentzian saritua

Comunitat Valenciana argazki sariketan finalista izan zen Joxe Mari Telleriaren eta Lake Oiarbideren argazkia

Fotoetxeko Joxe Mari Telleriaren eta Lake Oiarbideren argazki bat Comunitat Valenciana argazki sariketa entzutetsuko finalista izan zen publizitate alorrean. Valentziako Argazkilari Profesionalek Elkartek antolatzen duen sariketa honetako nazioarteko epaimahaiak 7 argazki hoberen artean aukeratu zuten idiazabalderen argazkia. Epaimahaia Pino Settanni argazkilari italiarrak, Lucille Feremans argazkilari belgiarrak eta Luc Peeters Nazioarteko Argazki Federakuntzako presidentek osatzen zuten.

Sariketara 4 argazki bidali zituzten: bat Mari gaitzat hartuta, bestea ezkontza batekoa argitasun berezia zuena, bestea bikote bati San Adriango koban ateratakoa, fokoekin-eta ateratakoa, normalean mendira eramaten ez den ekipoarekin ateratakoa.

Saria jaso duen argazkia, Idiazabalgo Oriko erroten ateratakoa da. "Errotako azpia oso ilun egoten da ia beltza eta

kanpoa mugimendurekin datorren ura zuri-zuria, hori zen arazoa. Uretan dagoenez barruko iluntasun hori argizatzea oso zaila zen. Hango tortokoia esaten dieten errueda horrek mugimendu efektua egitea nahi genuen", dio Joxe Mari Telleriak. "Ikusten genuen nahiko autore argazkiak zirela, gure kutsua ageri duena. Gero epaimahaian nor dagoen, zein tendentzi dagoen momentu horretan... denak du eragina".

Aurretik asko pentsatu eta landutako argazkia izan zen, bien artean landu zuten, barruko iluntasuna eta kanpoko argitasunaren arteko kontrastea berdindu eta mugimendu sentsazioa emateko.

Fotoetxekoak gustura daude sariarekin: "Estatu guztian argazkilari profesional asko dago eta espezializazio asko. Gu 'todoterrenoak' gara, arlo askotan lan ezberdinak egiten ditugu eta guk bezala beste askok. Horien artean saritzea errekonozimendu handia da".

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Beasaingo tunelean konpontze lanak

Gipuzkoako Foru Aldundi-ko Garraio eta Errepide Departamenduak jakitera eman duenez, N-I errepidean, Beasaingo tunela, Irungo norabidean, itxita egongo da hiru hilabetez gutxi gorabehera, konpontze lanak direla eta. Gasteiz alderako tunela, bi norabideentzako erabiliko da.

Beasaingik Ordiziara joan behar dutenei N-I errepidetik ez igarotzeko eta bi herriak lotzen dituen bidea erabiltzeko gomen datzen zaie. Saneamendu obregatik itxita zegoen arren, behin-behineko irekiko da tuneleko obrak egiten ari diren bitartean. N-I errepidean Beasaingo tuneleko obrak amaitu ondoren, Obra Hidrauliko eta Hirigintza Departamenduak bi herrien arteko bide loturan eragina duten saneamenduko obrak berriro hasiko ditu.

Gainera, Lazkao eta Ataun arteko errepidetik N-I errepidera sartzeko bidea itxi egingo da. Honela, horren ordez, N-I errepidea Gasteizko norabidean sartzeko eta itzulbidea Olaberriko sarbidean egitea gomendatzen da.

Larunbat gauetako autobus zerbitzua

Martxoaren 9tik aurrera, larunbat gauetan, ere autobus zerbitzua eskainiko du Goierrialdea autobus enpresak. Zegamatik Legorretara bitartekoa, Segura, Idiazabal, Iurre, Beasain, Ordizia eta Itsasondotik pasatuz; eta bestea, Ataun San Gregoriotik Zaldibiarra, Ataun San Martin, Lazkao, Beasain eta Ordiziatik pasatuz.

Gipuzkoako Foru Aldundia-riaren ekimena da eta Goierriko udalek eskatuta jarriko da martxan. Aurretik Foru Aldundiak beste eskualde

batzutan ere egin zuen proba eta orain zerbitzua luzatzea eta zabaltzea erabaki da. Gipuzkoan, larunbatero 15 autobus arituko dira lanean, ekainera bitartean.

Foru Aldundiak emandako datuen arabera, orain artean eskainitako zerbitzuaren batz besteko erabilpena sendotuz doa. Hasiera batean, erabilpena %20koa izango zela aurreikusten zen. Zerbitzu erabilienak goizaldeko 3etako eta 4etakoa izan dira.

Zerbitzuak harrera ona izan duten arren, autobus en-


presentzat defizitarioak izan dira eta Diputazioko Garraio eta Errepide sailak diru laguntza ematen jarraitzea beharrezkoa dela diote. *"Proba negu partean egin dela kontuan hartuta, orain bidaiarien kopurua gehitu egingo dela eta autobusen %20ko okupazioa %35era iritsi daitenkeela uste dugu. Horregatik, diru laguntza ere gutxitu egingo da eta zerbitzuak finantzatzeko 349 euro jarriko dira autobus eta gau bakoitzeko. Hiruhileko honetarako laguntza 88.995 eurokoa izango da".*

Zegama	Segura	Idiazabal	Iurre	Beasain	Ordizia	Itsasondo	Legorreta
22:30	22:35	22:45	22:50	22:55	23:05	23:10	23:15
00:00	00:05	00:15	00:20	00:25	00:30	00:35	00:40
02:00	02:10	02:20	02:25	02:30	02:35	02:40	02:45
				03:50	03:55	04:00	04:05

Legorreta	Itsasondo	Ordizia	Beasain	Iurre	Idiazabal	Segura	Zegama
23:15	23:20	23:25	23:30	23:35	23:40	23:50	23:55
01:20	01:25	01:30	01:35	01:40	01:45	01:55	02:00
02:50	02:55	03:00	03:05	03:10	03:15	03:25	03:30
		04:15	04:20	04:25	04:30	04:35	04:40

San Gregorio	San Martin	Lazkao	Beasain	Ordizia	Zaldibia
23:00	23:05	23:10	23:15	23:20	23:30
00:00	00:05	00:10	00:15	00:20	00:30
		01:00	01:05	01:10	
02:00	02:05	02:10	02:15	02:20	02:30
		02:45		02:50	03:00
			03:55	04:00	04:10

Zaldibia	Ordizia	Beasain	Lazkao	San Martin	San Gregorio
23:30	23:35	23:40	23:50	23:55	00:00
00:30	00:35	00:40	00:50		
	01:30	01:35	01:40	01:45	01:50
02:30	02:35	02:40	02:45		
	03:15	03:20	03:25	03:30	03:35
	04:15	04:20	04:25	04:30	04:35



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Goierri Lanbide Eskolako galdaragintza arlokoak, lan eskaintzaren aurrean

Emakumezkoak soldadura mundura hurbilduaraztea helburu

Lanbide Heziketako ikasketetan, administrari eta informatika arlokoetan izan ezik, emakumezko gutxi dabil. Gutxiena gainera, galdaragintzan edo soldaduran". Kezka horretatik abiatuta, langabezia tasan kopururik handiena emakumezkoena denez eta ikasketa horiek bukatu bezain laster lana aurkitzen dutela ikusirik, emakumezkoak 'gizonezkoen ofizioak' izan direnetan murgiltzeko animatu nahi dituzte. Martxoak 8 den honetan, emakumezkoen aldarrikapena egin nahi dute Goierri Lanbide Heziketako galdaragintzako arduradunek.

Miren Iartza eta Iñaki Oreja, Eraikuntza Metaliko arloko irakasleak dira, galdaragintza edo soldadura alorrekoak. Beraien kasua ondoen ezaguturik, galdaragintzako espezialitateetan emakumezkoen parte hartzea oso urria da. Aurten esaterako, neska bakarra ari da Goi Mailako zikloan. Galdaragintzaren edo soldaduraren inguruan daudden aurreiritziak, gizonezkoen ofizioa dela, lan zikina dela... uxatu nahi dituzte. "Lanak eboluzionatu egin du eta gaur egun ez da indarra eskatzen duen lan gehiegirik izaten. Soldadura bera asko automatizatu da, robotak programatzea izaten da lana. Lan batzuk daude adibidez, txapa fina edo detaile gehiago dituen txapak soldatu beharrekoak, eta gehienetan emakumezkoak hartzen ari



Miren Iartza eta Iñaki Oreja, Eraikuntza Metalikoko irakasleak.

dira, askotan emakumezkoak finagoak izaten baitira", adierazi digu Miren Iartzak.

Enpresak ere ohitzen ari dira emakumezkoak lantokietan izatera. "Bat zutan hasieran emakumezkoak hartu nahi izaten ez badute ere, behin hartuz gero, gehienek errepikatu egiten dute. Espreski emakumezkoak eskatzen dituztenak ere badaude". Ondo hartzen dituzte emakumezkoak lantokietan. "Berria izanda eta gainera neska izanda, agian, babes edo laguntza gehiago izaten da, ahulagoak garelakoan".

Miren Iartzak emandako datuen arabera, momentu honetan soldadura arloan, behar baino langile gutxiago dago. "Eskari handiagoa dago, eskolak eskaini dezakeena baino. Ikasketak amaitu orduko lana izaten dute, bai mutilek eta bai neskek. Hori horrela jakinda, oraindik ere emakumezko gutxi jotzen dute "gizonezkoen ofizioak" deitu izan diren horietara. Baldintza onak eta irtenbide asko daude, baina ez dago jenderik. Esaterako, Sakanan, kanpoko jendeak etorri behar izan du bertan ez dagoelako

Soldaduran erreferentzia

Enpresa eta ikastetxeen artean, Goierri Lanbide Heziketa Eskolako soldadura arloa erreferentzia da. Informazio eta material eske eta kontsultak egitera puntu ezberdinetatik hurbiltzen dira. Miren Iartzaren esanetan, "orain gainera Mondragon Unibertsitateko Ingeniari Tekniko eskola ere badugu, elkarketa teknologian espezializatua. Goi Mailako zikloa eginez gero, ikasketak sakondu daitezke Unibertsitatean. Eta alderantziz, Unibertsitatean joan eta gogorregia gertatzen bada, Goi Mailako zikloa egin daiteke eta maila oso polita lortzen da".

Datorren ikasturtetik aurrera berrikuntza izango da Eraikuntza Metalikoko Goi Mailako zikloan. "Modulo guztiak bateratu egingo ditugu, guztia proiektu baten inguruan antolatuko dugu. Gai guztiak proiektuan oinarrituko dira", zehaztu digu Iñaki Orejak.

"Soldaketako zenbait lanetan emakuzkoak hartzen dira, finagoak baitira"

eskulanik. Hori jakinda hainbeste etorkizunik ez duten beste arlo batzuetara jotzen dute emakumezkoak. Zergatik emakumezko batek ezin dezake soldatu? Aukera hori hor egonda emakumezkoek aukera hori eskaini nahi diegu".

Langabezia tasa handiena emakumezkoen artean dago gainera. "Askotan emakumezkoen arazoa da gehiago. Nik uste askotan emakumeak gutxietsi egiten direla, gutxiago izango direla gizonezkoen aldean. Baina emakumezkoetan, gizonezkoetan bezala, denetik dago. Soldadura lan zikina dela esaten da. Emakumezkoak makina bat lan zikin egiten du. Okerragoa da aitona-amonen edo umeen ipurdiak garbitzen ibiltzea, sukaldeko koipeak kentzea...", gehitu du Iartzak.

Aurreiritzi faltsuak

"Jendeak aurreiritzi faltsuak ditu soldadurari buruz. Lan zikina, karetarekin eta buzoarekin... identifikatzen da baina gaur egun ez da horrela. Lan asko robotarekin egiten da. Robotak programatu eta beraiek soldatzen dute. Orduan, lana, robotak programatzea izaten da bereziki. Soldadurako lan ezberdin asko egiten dira. Sormen lana ere egiten da", argitu du Iñaki Orejak.

Ormaiztegiko udala SOS

Azken urte honetan Ormaiztegiko alkatetza duen EAJ-EA koalizioak beraien barne ika-mikak direla eta udaleko kudeaketa organo ororen deusezte eta ondorioz herriko hamaika gai garrantzitsuen izoztea bultzatu du.

Orokorrean gardentasunik gabeko kudeaketak, arau edo prozedimenduei jaramonik egin gabeko erabaki larriak, axolagabe baimenak ematea, kontratazio gabe baina udalak ordaintzen dituen teknikariak, erantzunik eman gabeko herritarren eskariak, Gipuzkoako ahalduen Jon Mikel Muruaren zinegotzi kargu uzte susmagarria, beraien zerrendako beste inork honen hutsunea bete nahi ez izatea eta abar luze bat.

Azken aldian giza-bana-koengandik kalte ordain gisara Euro askotako diru kopuruaren eskariak iristen ari dira udalera, azken honen kudeaketa txarra edo gabeziaren ondorioz.

Nork ordaindu beharko dituzte geroz eta ugariagoak diren kalte ordain hauek? Udalak, hau da herritarrok ala EAJ-EA-k?

Denboran zehar geroz eta egoera larriagoa pairatzen ari garenez eta azkenaldian jasangaitzak diren jokaereta ohartuta Ormaiztegiko Batasuna ezin daiteke isilik gelditu.

Udaletxeko funtzionamendu demokratiko bat lortu nahian behin eta berriro saiatu gara Batasunako zinegotziok osoko bilkuretan adostasun minimo batzuetara iristen edo eta herritarrei egoeraren berri etxex etxeko idatzien bitartez ematen, baina alferrik.

Momentu honetan Ormaiztegiko udalaren egoera oso larria da, ez da inolako bilerarik egiten, ez osoko bilkuren egutegirik betetzen, ez gobernu batzorderik, deus ez.

EAJ, Noiz arte udala egoera honetan?

*Ormaiztegiko Batasunako
Zinegotziak:
Oihana Oñatibia
Igor Elortza
Roman Larena*

Landarlanek ingurugiro txokotik orria aurkezten du

Abenduan aipatu bezala, Goierriko ingurugiroaren alde zerbait egitearen beharra ikusi ondoren, pauso batzuk eman ziren. Ondorioz, jende berri bat elkartu zaigu, eta helburuak ere adostu dira. Horrela, "jasangarritasunaren lemapean, ingurumen eta bizi kalitatearen alde egitea" erabaki da helburu orokor bezala. Honen atzetik, beste helburu batzuen artean kalera begira ondorengo bi hauek genituzke: "Goierritarren kontzientzia maila suspertu" eta "Biztanleria ingurumen gaian hornitu, oinarriko irizpideak eskainiz".

Bilera batzuren ondoren, jada martxan jarzteko gertu gaude. LANDARLAN izenez ezagutarazi genizuen egitasmoak GOIERRITARRAren ale honetatik aurrera eta urtebetez, hemen izango dira irakurgai. INGURUGIRO TXOKOTIK deitu den orrian Goierriko landa ingurunean gertatzen diren prozesu, mugimendu, arazo eta abarren berri emango da. Bertan artikulotxo bat jasoko da. Lehenengo bi aleak ingurugiroa era errazean ulertzera bideratuak joango dira, gerokoak taldekide bakoitzak libreki aukeratutakoak liratekelarik. Artikuloaren ondoan gai anitzez hornitutako atala landuko da, jendearen jakinmina, zalantza, landareen loraldi garaiak, bertako faunaren egoera, ekintzak eta eskualdeko beste mila berriekin.

Gogoratu, modu batera edo bestera parte hartu nahi baduzue, Goimen Elkarteko telefonoan izango gaituzuela (943-161244). Interesgarri izango zaizuelakoan, hemendik gure gonbitea.



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Dirua ez da dena

Gaur egun bapo bizi gara munduko leku batzuetan baliabide materialei dagokienean, baina egoera mundu mailan aztertuta jasangaitza da, batez ere, pentsatzen badugu, hemen daukagun garapen mota ezin dela munduko giza-talde guztietara hedatu. Hemen daukagun erosotasunarekin gizateria guztia bizitzeko baliabideak falta dira eta Naturak ezin irentsiko lituzke baliabide guzti horiek lortzekoan sortutako hondakinak. Gaur egun hiru Lur planeta beharko genituzke kanadiar ertain baten bizi-maila munduko biztanle guztiengana zabaltzeko.

Herrialde batzuk, Europa Batasunekoak adibidez, garatutzat jotzen ditugunean, hala al da benetan? Hemen baliabide material asko eta kontsumitzeko maila altua daukagu. Baina, hori bakarrik nahikoa al da gure gizartea garatua dela baieztatzeko? Nere ustez, ez. Garapen egoki batek gutxieneko premia materialak asetzeaz gain kalitateko demokrazia, askatasuna, osasuna, errentaren banaketa bidezkoa, jakintza eta ongi zaindutako ingurugiroa bezalako alderdiak ere berarekin ditu.

Gaurko mundua merkatua jainkotzat duen ekonomiaren hazkundean oinarritzen da. Etengabe hazten joan behar den sistema ekonomiko hori, hazkuntzarik gabe funtzionatuko ez lukeelako, itomenera garamatzen konpetibitatean edo erosotasuntzat jotzen den guztia erosteko egarrian bezalako balioetan oinarritzen da. Baina, behar bada, ez dugu guzti hori behar eroso sentitzeko.

Hazkuntza ekonomikoa gero eta lehengai gehiago ateratzean eta ondasun eta objetuen gero eta produkzio handiagoan eta, beraz, hondakin gero eta gehiagoren produkzioan oinarritzen da. Hazkuntzak muga bat dauka, Lur planetak duena baino ez duelako. Giza garapena da, ordea, mugak zertan izan behar ez dituen. Garapen hori bai lortu daiteke, daukagun "korapiloari" irteerak bilatzeko, giza gaitasunak garatzea esan nahi baitu. Eta bide hori da egiteke dagoena.

Aurretik esandakoak garapen era berri baterantz, Garapen Jasangarria (GJ-izenekoa), aurrera pausoak ematen hastea behartzen gaitu. Baina uste dut oraindik ez dagoela inor GJ hau edo beste dela esan dezakeenik, ez dauka inork paradisuko planorik, izan ere une honetan aurkitzen garen egoera jasanezinari aurre egiteko asmatu den kontzeptua baita. GJ, be-



SE

raz, esploratu beharreko bide bat da. Dena den, GJ horren ezaugarriak honakoak direla esan daiteke: gaurko mundu osoko belaunaldiaren barne-ekitatearen aldekoa eta etorkizuneko belaunaldi baliabideak segurtatzearan aldekoa izatea, ingurugiroa suntsituko ez duena eta ekonomikoki bideragarria izatea, Lur planetaren mugak onartuko dituen eta nazioarteko kooperazioaren bidez mundu guztian aplikatzeko modukoa izatea.

GJ-aren bidetik gaurko egoera hobetzeko, egiteko bat produkzio-prozesuetan eraginkortasun handiagoa lortzea da, teknika egokiagoren bitartez lehengai gutxiago erabiliz eta hondakin gutxiago ekoiztuz. Soluzio teknologikoen eraginkortasun hori gehituko balute ere, gauza asko edukitzeari gizatasunez betetako pertsonak izateari baino garrantzi gehiago ematen jarraituko bagenu, egoera jasanezin batera iritsiko ginateke. Horregatik, gure premia materialak asetzeko nahikoa zer den, alegia, duintasunez bizitzeko zein baliabide material kontsumitzearekin nahikoa izango genukeen berrikusi behar dugu.

Joxan Auzmendi

“
Gure premia
materialak asetzeko
nahikoa zer den
berrikusi behar dugu.”

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

LIBURUA

‘MEADOWS ET AL, Más allá de los límites del crecimiento’. El País-Aguilar, Madrid 1994. Egileek gaurko bizi-estiloa jasanezina dela frogatzen dute eta aholku zehatz bat ematen dute: bi aukera daude soilik, etorkizun jasangarri bat edo Lur planetaren kolapsoa.

JAKIN BEHARREKOA

Nazio Batuen Erakundeak, **mendien nazioarteko urtea** izendatu du 2002.eko hau. Izendapen honek, mendi ingurunea zaintzearen beharraz gizartea kontzientziatzea eta bertako komunitateen biziraupena ziurtatzea du helburu. Hori dela eta ekitaldi desberdinak antolatuko dira urte guztian zehar mundu mailan.

GARAIA GARAIOA

Udaberria nabaritzen hasia da landaredian. Behealdetan hurritza, haltza eta sahasen loreak onena eman dute, goietan, berriz, oraindik puri-purian ikus ditzakegu. Orain loratzen hasiak dira lizarra, zumarra eta arantza beltza. Hauek denak loreak hostoak baino lehen ematen dituzte, horregatik oso errazak dira antzematen. Txikiagoak, baina distiratsuak azaltzen dira murko eta erreka bazterretan San Jose loreak, bioletak eta beste belar dotore eta goiztiarrak. Dagoeneko erle erreginak erruteari ekin dio eta erleak aztoratu dira... ikusi atera berri diren txikori belarrak!

Amona mantangorri edo marigorringoak (Coccinella septempunctata), gure frutarbolletara datozen zorri jale suetsuak ditugu eta jada hasiak dira lanean...Eskerrak!

BioSasieta:

zaborrak sortzen duen metano gasa elektrizitate bihurtzeko planta

Otsailaren 28an inauguratu zen BioSasieta S.A., Sasieta zabortegian bertan. Zaborren fermentazioaren ondorioz sortzen den biogasa aprobetxatu eta energia indar bihurtuko da motor-alternadorearen bidez. Urtean, 3.4 milioi Kwh sortuko dira, momentuz; hau da, 3.500 biztanlek gutxi gorabehera urte beteetan etxean kontsumitzen dutena. Aurrera begira antzeko beste motore bat jarriko da 8.800 biztanlerentzako energia sortuz. Energia berriztagarri bat aprobetxatzeaz gain, ingurugiroaren arloan ere onurak izango dira, berotegi-efektuaren eragile den metanoa atmosferara ez baita botako.

Energiaren Euskal Era-kundeak (EVE) eta Sasieta Mankomunitateak osatzen dute BioSasieta. Planta hau eraikitzeke 718.000 eurotako (119.500.000 pezeta) inbertsioa egin da. Zenbait euskal enpresek ere parte hartu dute ekimenean.

Zabortegietan utzitako zaborrek sortzen duten gas metanoa aprobetxatuz energia elektrikoa produzitzea ez da berria EAEn. BioSanMarkos Donostialdean eta BioArtigas Bilbon, aspalditik funtziona-



BioSasietaaren inaugurazioa, otsailaren 28an. Pello Garaialde Sasieta Mankomunitateko lehendakaria, Josu Jon Imaz EAEko Industria eta Merkatal sailburua, eta Garrote EVEko ordezkaria, zinta mozteko unean.


menduan dauden esperientzia antzindariak dira Espainiako estatuan. BioSasietak dena den, badu berrikuntza bat: proiektua tamaina ertain-txikia duen zabortegi batean sortu dela, orain arte zabortegi handietan baino ez da aplikatu.

Ingurugiro onurak ere bai
Zabortegietan utzitako zaborren hartziduraren edo fermentazioaren ondorioz sortzen diren gasak modu artifizial batez deuseztatzean datza prozesua. Motor-alternadore bidez, metano gasa elektrizitate bihurtzen da. Sistema honen bitartez hobekuntza garrantzitsuak lortzen dira ingurugiroaren ikuspegitik ere. Esaterako, zabortegiaren desgasifikazioa, eta berotegi-efektuaren eragile den metanoa ez da atmosferara emititzen. Abantaila sozio-ekonomiko arloan, aipatzekoa da energia berriztagarri bat aprobetxatzen dela, biogasa kasu honetan.


Era honetan, sortuko den elektrizitatea sare elektrikora bideratuko da. Erregimen Berrezian salduko da. Lehenengo urterako aurreikusten den diru-sarrerara gordina 25 milioi pezetakoa da, gutxi gorabe-

hera. BioSasietak produzituko duen energia elektrikoa, motorra erabateko errendimenduan, 3.500 pertsona inguruk etxean kontsumitzen duten elektrizitatearen balio-kidea da. Bigarren motoreak jartzen denean, 8.800 biztanlerentzako energia sortzea aurreikusten da.

Josu Jon Imaz, EAEko Industria eta Merkatal sailburua inaugurazioan esan zuenez, BioSasieta proiektua, 3E-2005, Euskadiko Energia Estrategia izeneko planean kokatua dago. Plan honen bi ardatz nagusiak energia aurrezte eta energia berriztagarriak sustatzea dira. Ildo honetan, 2005. urterako potentzia instalatua 6.800 kWetan gehitzea du helburu biogasa-aren aprobetxamenduari dago-kionez.



Sasieta Mankomunitatea: "Energia berriztagarri bat aprobetxatzeak duen abantaila sozio-ekonomikoa gain, planta honek, ingurugiro ikuspegitik begiratuta, abantaila handiak eskaintzen ditu. Garrantzitsuena, zalantzarik gabe, zabortegiaren desgasifikazio egokia litzateke. Maila globalizatuago batean, airera metanoa isurtzea ekiditen da. Esan beharra dago, 'negutegi efektua' ren bostetik batekoa metano gasari zor zaiola eta gas honen emisioen heren bat zabortegiei dagokiela. Metanoak berotasuna bere baitan gordetzen du eta horregatik, atmosfera berotzen laguntzen du".



Tximiniak:

Lehenik zaborteigian txertatutako tximinietatik (1) gasa erakartzen da. Gaur egun 12 tximiniez osatutako sarea dago, denak ere estrategikoki kokatuak. Zaborteigian ustiaketa aurrera egin ahala tximini kopurua 30era iristea espero da. Tximini bakoitzak 25 metroko eragin eremuan sortutako gasa bildu ohi du gutxi gorabehera. Tximinien sakonera aldakorra da zaborteigian duen kokapenaren arabera, baina 20 metrora erraz iritsi daiteke. Lehen aipatutako 12 tximiniak 4 hodi-lerrotan biltzen dira ondoren neurketa eta erregulazio gelara (NEG) ailegatzeko. Etorkizunean instalazioak 6 hodi-lerro aurreikusten da.

Neurketa eta erregulazio gela (NEG):

Gasa, esan bezala, neurketa eta erregulazio gelara eramaten da kaptazio-sarean presio negatiboa egiten duen xurgailu (6) baten eraginez. Gela honetan lau hodi-lerroek emandako kaudala erregulatu

Prozesua:

Biogasetik energia elektrikora

egiten da motorearentzako nahasketa aproposa eta kalitatezkoa lortu asmoz. Aldez aurretik gas kaudal osoa elementu ezberdinetatik pasatzen da duen hezetasuna eta zikinkeria kentzeko.

Galdaratxoa:

Honela, neurketa eta erregulazio gelara iritsi baino lehenago, lerro bakoitzeko gasa galdaratxo (2) batetik pasatzen da kondentsatuen zati bat kentzeko. Hori egin eta gero, gasa NEGeko galdara zentrifugotik (zikloi berezgailutik) (4) pasatzen da kondentsatuaren zati bat kentzeko eta hezetasuna kentzeko ekipotik (5) oraindik geratzen zaion hezetasun apurra kentzeko.

Elektrobalbulak:

Areto honetan bertan elektrobalbulen (3) bidez lerro ezberdinen erregulazioa egiten da lortu nahi den gas kalitate-

aren arabera, sarrerako lau hodi-lerroak irekiz edo itxiz. Elektrobalbula hauek PLC baten eta ordenagailu baten kontrolpean daude, lau lerroetako kaudala erregulatu eta beraien nahasketa motorarentzako egokia izan dadin. Gasaren kalitatearen ezaugarriak garrantzitsuena metanoportzentajea da. Kasu honetan %49,50ekoa da.

Motor-alternadorea:

Gas nahasketa egokia motor-alternadore bultzatzen da. Bertan sartu aurretik gasaren tenperatura (8) igo egiten da bere ihintze-tenperaturatik aldentzeko eta motoreak kaltetu dezaken kondentsaturik ez sortzeko. Motor-alternadorea (10) Guascos etxeko motoreak eta Leroy Somer etxeko alternadore sinkronoz osatua dago. Motorearen ezaugarri teknikoak hauek dira: 4 denboratako motoreak, 75 Kw-ko potentzia elektrikoa eta 12 zilindro 'V'an jarriak. Alternadorearen ezaugarriak, berriz, honako hauek dira: 592KVA-ko potentzia jarraia, 50 Hz-ko frekuentzia eta 1.500 r.p.m-ko erregimena. Multzo hau hozteko motor-gelak hain zeko hozte sistema du.

Motoreak erabateko errendimenduan lan egiteko 220m³/orduko behar ditu.

Erregailua:

Egon litekeen gas soberakina erregailura (7) desbideratuko da. Erregailuak motoreak gelditzen den unetan edo matxuraren bat duenean jarriko da martxan, zaborteigian desgasifikazioa bermatuz.

Transformazio zentroa:

Sare elektrikoarako konexioa 13,2KV-ko tentsioan egiten da eta horretarako transformazio zentro (13) bat dago 1.000 kVA-ko potentziako transformadore bat duena, motore multzoak sortutako energia elektrikoaren tentsioa 380 Vtik 13,2 kV-ra igoz duena.

Pikuondo etxe okupatuaren aldeko festa

Ordiziako Gaztetxean

Duela 10 hilabete okupatu zuten Beasaingo Kaminero etxea

Beasaingo Kaminero etxea, 2001eko maiatzaren 18an okupatu zuten, Goierriko 6 gaztek. Gipuzkoako Foru Aldundiaren etxe honetan 17 etxebizitzetatik 16 hutsik zeuden. Momentuz 4 etxebizitzatan bizi dira. Tarteka jende gehiago ere joaten omen da, arrazoi pertsonalak behartuta.

Beharrak bultzatu zituen gazteok hutsik zegoen etxe bat okupatzera. "Ia kalean geunden, ez geneukan laguntzarik... eta sartzea pentsatu genuen". Etxebizitzetaz gain, erabilera anitzetarako bi gela prestatu dituzte, liburutegi, sukalde eta egongela eta guzti. Tailerrak egiteko asmoa daukate. Atzealdean baratzea ere badaukate.

Beharrak bultzatu dituzte gazteok etxea okupatzera baina horren atzean pentsatzeko eta bizitzeko modu bat ere badago. "Ezin gara gurasoen etxetik atera. Etxebizitzaren beharra daukagu. Laguntza sozialik ez daukagu eta ezin gara alokairuan sartu. Espekulatu egiten da etxebizitza gaian. Etxebizitza lortzeko laguntzak badaude baina pauso asko eman eta hainbat



Beasainen 800 etxe huts daudela salatzen dute okupek.

baldintza bete behar dira eta gazte askok ez daukagu aukerarik. Espainiako Konstituzioak dio jaiotzen garen unetik etxebizitza izateko eskubidea daukagula. Etxe hau gainera Diputazioarena da eta beraiek dira laguntzak eman behar dituenak. Bitartean berak etxe hau hemen dauka, hutsik".

Denen artean etxea txukuntzen

Larunbatetan, auzolanean, etxea txukuntzen ari dira. "10 hilabete obratan gaude. Ura, argia... kendu zizkiguten. Hertzetasun handia dago. Teila-tua konpondu beharra izan dugu... Honek kentzen digu denbora guztia eta sormen lanerako ez zaigu denborarik gelditzen", diote.

Denon artean etxea altxatzea lortu nahi dute eta autoaskiak izan. "Etxebizitza edukitzeko eskubidea erreibindikatu nahi dugu eta horrekin batera, gazteok elkartzeko leku bat. Beasainen ez dago ezer. 10 urte daramazkete Gaztetxea eskatuz".

Arazo guztiekin aurre eginez

Ostegunetan bilera egiten dute bertako bizilagunek. Bertan erabakitzen dute zein lan egin behar duten eta arazoren bat izanez gero, bertan konpontzen saiatzen dira. Arazo ugari izan dituzte: "Lehenengo bi hilabetetan izaten genituen arazorik gehien. Ertzaintza etorri eta bertan geunden 7 lagun identifikatu gintuzten. Hasieran gu bel-

Kontzertu-festa

Ordiziako Gaztetxean, gaueko 9,30etan, bi kontzertu izango dira gaur eta bihar. 'Denon laguntzaz Pikuondo eraiki!' lemapean. Sarrera: 3 euro.

● **Martxoak 8, ostirala:** As-to Pituak, Leher, Spuriu eta Apartheid hil.

● **Martxoak 9, larunbata:** Lif, Delhi considera eta Guda garaia.

durtzen saiatu ziren ea alde egiten genuen. Ura eta argia ere kendu zizkiguten. Orden bat behar dute gu hemendik ateratzeko, desalojoa izango litzateke".

Bizilagunekin ondo konpontzen dira. "Askotan esan digute ez dagoela eskubiderik hainbeste etxebizitza hutsik egoteko".

Dirurik eza ere arazo

Hainbat herritarrek eman dizkie altzariak: "etxean altzari berriak jarri behar dituztela eta zaharrak kentzera deitu izan digute". Eskulan tailerrak ere egin nahi dituzte. "Ideia asko daukagu baina denbora eta materiala falta da". Konponketa-lanak egiteko materiala erosteko ere dirua behar dute.

Boni-etxe

igeltseritza orokorra

© 616 921 502 Oriako pasealekua, 12 BEASAIN

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarkeko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Udaberriko lore eta landareen II. azoka

Seguran, martxoaren 24an

Idi perratzea eta Juan Gorritiren eraskusketa ere ikusgai izango dira

Aurten bigarren aldiz, Udaberriko lore eta landareen azoka egingo dute Seguran, martxoaren 24an. Udalak herritarrekin batera antolatutako egun honetan, lore eta landareez gain, beste hainbat ikuskizun ere izango da egunean zehar. Besteak beste, idi-parearen perratzea eta Gorriti eskulturgilearen erakusketa.

Urte garai honetan gure inguruko baratza, lorategi, etxe eta balkoiak apaindu eta osatuko dituzten landareak eskuratzeko aukera paregabea izango da Seguran, martxoaren 24an. Lore eta landareetan aukera zabala egongo da, 12 postutan: baratzarako landareak, etxe barrurako landareak, balkoirako loreak, lorategirako lore eta landareak eta frutarbolak. Plaza parean, Erdiko kalean eta Kale nagusian izango da azoka.

Honez gain, Segura bertako eta inguruko herrietako artisautza eta kalitatezko baserriko produktuak egongo dira ikusgai eta erosgai. Adibidez, Segurako talogileak, Segurako tarta, gaztagintza erakusketa, ezti eta erlezaintzako produktuak, Zeraingo produktuak, Gatzagako Jakion,



Egitaraua

10:00etan: Herriko txistulari eta Koldo Trikitixa eskolako trikitilariak, herriko kaleetan zehar.

10:30ean: Azokaren hasiera. Lore eta landareen erakusketa eta salmenta. Artisautza eta bertako produktuak.

12:30ean: Beheko errebalean errementariak lanean: idi-parearen perratzea.

17:00etan: Erromeria eta herriko dantzariak.

18:00etan: Buru-handi eta erraldoiak.

Ikuskizunak

- Ardixarra etxean Juan Gorritiren eskulturak: 'Baserriaren argia' erakusketa.
- Ama Jasokundeko Elizan Aste Santuko anda eta pasoak.
- Segura: Erdi Aroko hiribildua.

Altsasuko Katealde pateak, Pagorriaga oreinkinak... Postuzaleentzat hamaiketakoak izango da Zopajale elkartearen.

Segura, ertaroko hiribildua

Azoka Segurako ertaroko hiribilduaren barruan burutuko

denez, bertako ondarea eza-gutzeko aukera izango da: Ardixarra etxea, Ama Jasokundeko Eliza, jauregiak, portalak, eta abar.

Perratzaile eta errementari lana

Eguerdia aldera azoka burutu-

ko den plazan bertan Telleriatarren idi-parea uztartuko da. Aurretik plazan egongo dira ikusgai. Ondoren, hiribilduaren kanpoaldeko Beheko Errebalean dagoen Errementari etxeko perratokira joango dira eta bertan bi idiak garai batean egin ohi zen eran perratuko dira. Era berean, errementariaren lantokia ikusteko aukera izango da: sutegia, tresneria eta lanabesak, ingudeak, eta abar.

Juan Gorritiren eskultura erakusketa

Kale Nagusian udalak birgaitutako Ardixarra, XVI. mendeko etxean Juan Gorriti eskulturgileak zurez egindako lan handi eta txikiak izango dira ikusteko eta eskuratzeko moduan. Erakusketa hau Ebel elkartearrekin batera antolatu da eta emakumezko baserriarraren omenez egin nahi den eskultura-oroigarri iraunkor baten aldeko proiektuaren barruan kokatzen da.

Aste Santuko pasoak

Ama Jasokundeko elizan Segurako Aste Santuko prozesioetako pasoak ikusgai izango dira.

**OTEÑE
ERRETEGIA**

Bazkari, afari eta edozein ospakizun ingurune paregabea

Larraitz bidea

GAINTZA

☎ 943 88 98 48



**iñAUSTI
KARROZERIA**



N-1 errepidea, lurre auzoa
☎ 943 88 43 01 OLABERRIA



Argazki lahiaketa

Herritarrentzat antolatzen den argazki lehiaketaren oinarriak eta baldintzak kalera-tu ditu Udaleko kultura sailak. Urteroko jarraibide berarekin Gabiria izango da erretratuak ateratzeko gaia, herriko txokoak, eraikuntzak, paisaiak, elementuak edota pertsonaiak barne hartzen dituela, osagai batzuk aipatze aldera. Argazkilari bakoitzak gutxienez lau eta gehienez sei irudi aurkeztu ahal izango ditu, izan txuri-beltzean nahiz koloretan, euren negatiboekin batera. Lanak kartazal zurian eman behar dira martxoaren amaiera baino lehen udaletxean, eta trukean karrete bana jasoko dute parte hartzaileek. Kultur astean edukiko du leku sari banaketak, baita bildutako argazki guztiekin osatutako erakusketak ere.

Mus jokoa hurrengo larunbatean

Aurten 24. urtea beteko duen mus txapelketa Osinalde elkartearen izango da, datorren martxoaren 16an, larunbata, gaueko 9etatik aurrera. Baldintzen artean zehazten denez, bikoteko batek gutxienez gabiriarrak izan behar du, eta jokoa 8 errege, 8 hamarreko eta 3 usteletara jokatu-ko da. 18 urtetik beherako gazteei sarrera-diruaren erdia soilik kobratuko zaie. Lehenengo lau bikoteentzat diru-sari eta garaikur mardulak

daude ipinita, eta gainera, postu horietatik kanpo geratzen direnen artean saski pare bat zozketatuko da. Sariak: 1. 120 euro eta garaikurak. 2. 84 euro eta garaikurak. 3. 60 euro eta bi pattar botila. 4. 36 euro eta 2 txanpain botila.

Bolatako jardunaldia

Goierriko txapelketak bisitatu berri du herria. Martxoaren 2an lehiatu ziren hogeita hamabost bolari goiz eta arratsalde, eskualdeko ligako hirugarren jardunaldiari zegokion saioan. Otsailetik apirilera launbatero izaten dira tiraldiak, eta zirkuitua zortzi bolatokik osatzen dute. Hauexek geratu ziren lehen lau postuetan, zortzi botaldiren ondoren:

1. Markos Madina: 47 + 23
2. Zeferino Agirre: 47 + 22
3. Alfonso Retegi: 47 + 21
4. Luis Aizpeolea: 47

Bertsoz hornitutako martxoa

Bihar hasita hiru larunbatean bertso ugari entzuteko aukera izango da Goierrin. Osinaldeko probarako baliagarriak diren beste hiru sari jarriko dute abian 31. txapelketa. Lehenengo aukera bihar bertan dute bertsozaleek, Aztiriko Aztiri-bat elkartean. Argi-berri saria datorren larunbatean jokatu-ko da Ordizian eta hirugarrena hu-



Milaka ikusle rallyak erakarrita

Beste urtebetez pronostiko guztiak hautsi ditu Kamiño-zarreko auto lasterketak bildutako jendetzari dagokionez. Denboraldiaren txupinazoa izateak eta modalitateko bitxitasun ugari bertan ikusteak milaka zaletu hurbilarazi zituen Gabi-riara joan den martxoaren 3an, eguraldia lagun. Gainezka egiten dute errepideek etorritako kotxe ilaren eraginez: Madariagako bidegurutzetik gora Noare-etxeberriaraino, Arrondonetik behera Isistiraino eta kaskorantz Etxebizkai parerai- no heldu ziren aparkatutakoak. Antolatzaileen esanetan 10.000 lagun inguru bildu ziren zirkuituan.

Azkenean izena emandako 54 autoetatik 48 irten ziren, baina horietako zortzik denbora baino lehen bukatu zuten lau joan-etorriko ibilbidea. Goritz Garmendia alegiarra zen horien artean, arazo mekanikoei behartuta erretiratu egin baitzen. Artetxe irabazle bizkaitarrak 100 km/h-ko batezbestekoa erdietsi zuen 26 kilometroak egin ostean, eguneko izarretako bat zen Cordoba WRC autoarekin. Azken tramua ezereztatu egin zen, errepidetik irten eta auto batek ikusle bat harrapatu zuenean. Hala ere arratsalde gertaera larririk gabe igaro zen.

rrengoan dute Idiazabalgo Axari elkartearen, beste seina bertsozaleekin. Saioren aurretik afariak daude antolatuta, 8:30etatik aurrera. Hona hemen hiru sarietan jardungo duten hemezortzi bertsozaleak:

Aztirin, martxoaren 9an: Manex Agirre, Iñigo Izaguirre, Alaitz Sarasola, Estitxu Eizaguirre, Beñat Lizaso eta Joseba Andoni Beltza.

Ordizian, martxoaren 16an: Iker Zubeldia, Egoitz

Zelaia, Jon Martin, Iñaki Apalategi, Eneritz Zabaleta eta Etxahun Lekue.

Idiazabalen, martxoaren 23an: Iñaki Gurrutxaga, Gorka Ostolaza, Jokin Uranga, Ekaitz Goikoetxea, Unai Muñoa eta Egoitz Eizaguirre.

Hauetako sei bertsozalek saio bakoitzeko txapeldunak eta txapeldunordeak Gabi-riako Osinalde sarian neurtuko dituzte indarrak apirilaren 6an.

Aimar Maiz



AUSOEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak





Bertsolari gazteen jarduna

Gabiriako Osinalde sarirako baliagarria izango den bertsolari gazteen V. Argi Berri saria jokatu da datorren martxoaren 16an Bustuntza auzoko Argi Berri Elkartearen. Iker Zubeldia (Beasain), Egoitz Zelaia (Hendaia), Jon Martin (Oiartzun), Iñaki Apalategi (Beasain), Eneritz Zabaleta (Baiona) eta Etxahun Lekue (Larrabetzu) izango dira protagonista nagusiak, denak ere apirilaren 6an Gabirian jokatu den finalerako sailkatzea lortu nahian. 6 horietatik 2 izango dira bertan eta gainontzeko lauak Aztiri eta Idiazabalgo Axari elkartearen jokatu diren kanporaketetatik aterako dira.

Iluntzeko 8,30etan afaria izango da eta horretarako txartelak salgai daude Bustuntza auzoan bertan dagoen Iñaki Tabernan (18 euro). Epaimahaiaren ustez bi bertsolaririk onenak zeintzuk izan diren agertu aurretik, afalkideen artean bozketa ere egingo da. Bertsolari gustukoena nor izan duen bakoitzak izango da bozkatu beharrekoa eta boto gehien jasoko dituen gazteak V. Argi Berri sariko oroigarria eskuratuko du.

Kultura batzordearen oharra

Dirulaguntzen emaitza arintzearen eta Udalak onartutako arautegia jarraituz Kultura Batzordeak zera gogorarazi nahi die kultur elkarte eta taldeei: apirilaren 30a baino lehen 2002. urteko ekintzen programa eta aurrekontuak aurkeztu behar dituztela eta era berean, orain arte egin ez

Zuberoa 2000-2010 egitasmoa

Egun Zuberoak bizi duen errealitatearen aurrean, populazioaren beherakada, lantegien murrizketa eta bertako kultura jasaten ari den beherakadaren aurrean, horri buelta eman nahian egitasmo bat jarri zen martxan. Udalbiltza eta Euskal Fondoak ek butzatuta 'Zuberoa 2000-2010 egitasmoa' aurrera eramanez ahal izateko diru bilketa kanpaina martxan jarri zuten. Honetarako Euskal Herri osoaren laguntza beharrezkoa izango denaz jabetuta, herriei dagokie orain txanda. Hau dela eta, Ordizian talde bat martxan jarria da jada baina lan talde zabala izatea proposatu da.

Egitasmoaren aurkezpena martxoaren 12an, asteartea, arratsaldeko 7etan egingo da Udaleko plenu aretoan eta behin aurkezpena egin ondoren Zuberoaren egoerari buelta eman asmoz diru bilketa antolatzen hasi beharko da. Bideo emanaldiak, hitzaldiak, Zuberoako benetako errealitatea islatu asmoz bertara bisita... denak ere beharrezkoak izango dira. Egitasmo honetan parte hartzeko nahikoa izango da 943-885307 telefono zenbakira deitu eta Amaia Iztuetaekin hartuemanetan jarri.

badute, 2001. urteko diru balantzearekin batera ekintza eta ondorioen memoria aurkeztu behar dutela.

Elkartearteko mus txapelketa martxan

Elkartearteko XXIII. mus txapelketa, aurtengoan, Argi Berri elkarteari egokitu zaio antolatzea. Astelehenean bertan hasi ziren herriko 8 elkartetako bina bikote nor baino nor eta ligaxka moduan joka-

tu ondoren martxoaren 15ean jokatu da finala. Bi multzotan puntu gehien lortu dituzten bikoteen artean jokatu da berau.

Kale berrien izenak

Txakurtxulo inguruko etxebizitzaren eraikitze lanak aurreratuak daude jada, nahiz eta zer eginga badagoen oraindik. Bitartean bertan sortuko diren kale eta plazen izendegia erabakia du Udalak eta oraingoz hauen berri eman besterik ez dizuegu egin nahi. Oria ibaiaren pare joango dena Bizkaia pasealekua izango da, Aita Urdaneta Kalearen pare joango dena, berriz, Nafarroa Beherea kalea, Zuberoa kalea ere hor izango da Santa Amalia kalearekin batera eta aurrefik aipatutako lauen erdian Lukusin Plaza. Arboledatik beherako eskilarak jaitziz gero Bazterretxe Plazarekin egingo dugu topo. Jakin baita ere Udalak Euskaltzaindiari bidali ziola herriko kaleen izendegia eta honen emandako aholkuei jarraituz hainbat kale izen elebidunez agertuko direla hemendik aurrera, hala nola Santa Maria Kalea Andra Mari kalea ere izango da hemendik aurrera.

Aitor Calvillo

Atletismo emaitzak

Eneko Barandiaran marka guztiak hausten ari da inongo ez-bairik gabe. Oraingo honetan Valentzian zuen zita. Bertan pista estalian junior mailako Espainiako txapelketa zen jokoa eta Enekok heptalon proban hartu zuen parte. Zazpi probetan erregular ibili ondoren 4.442 puntu lortu (bere marka ondus) eta bosgarren postua eskuratu zuen. Progresio honekin jarraituz gero ziur gauza handiak lortuko dituela Txindoki Atletismo taldeko Eneko Barandiaranek.

Bestalde Euskadiko kros txapelketa ere jokatu berri da Ortuellan eta bertan Amaia Insausti 9.a izan zen eta Jose Javier Cuadrado "Karratu" 14.a. Donostian jokaturako pista estaliko Euskadiko txapelketan, aldiz, Jon Etxeberrria bigarrena izan zen 1.500 metroko proban. Jubenil mailan ere emaitza onak lortu dituzte Txindoki A.T.ko lasterkariak. Eneko Arratibel 1.500 metroko proban nagusitu zen pista estalian jokaturako Euskadiko txapelketan (Durango), gauza bera Adur Ugarte-mendia jauzi hirukoitza eta luzera jauzian eta Eñaut Sarriegi altura jauzian. Junior mailan Eneko Barandiaranek pertiga jauzian ere garaipena eskuratu zuen. Kadete mailan Eñaut Gereñuk Euskadiko errekorra apurtuz garaipena eskuratu zuen 300 metrotan eta 60 metotan gailentzea ere lortu zuen.

Gaur hasi eta martxoaren 15a bitarte mendiko astea antolatu dute Beasainen. Erakusketak, hitzaldiak eta diapositiba emanaldiak ikusteko aukera izango du beraz datorren aste honetan.

● **Martxoak 8:** Felipe Uriartek Andeatoko diapositibak eskainiko ditu. "Mendiak eta Herriak" mendi gidarien enpresako arduradunetako bat da Felipe. Andeatoko irudiak eskainiko dizkigu. Akonkagua, Ojos del Salado eta Pisis bezalako mendiak erakutsiko dizkigu Felipek. Belen Eskisabel beasaindarra dugu Ameriketako hiru gailur altuenak igo dituen lehen euskal emakumea. Hain zuzen ere Felipe Uriarterekin batera

igo zuen Pisis eta Ojos del Salado

● **Martxoak 13:** Javier Fernandez diapositibak ikusi ahal izango ditugu. Ordesako inguruneak erakutsiko dizkigu.

Bi emanaldiak ere Aizkorri elkartearen izango dira 20:00etan.

● **Martxoak 15:** III. Mendiko Argazki Lehiaketako sari banaketa egingo da Usurbe Antzokian 19:00etan. Ondoren luntx-a emango dute eta egun horretatik aurrera, lehiaketara aurkeztu diren lanak ikusgai izango dira Usurbe Aretoan martxoaren 24a bitarte.

Nekane Altuna

KZ Gunea Ezkiaga Auzo etxean

Martxoaren 11n festatxo bat egingo dute Ezkiaga Auzo Etxean bere aro berriari hasiera emateko. Arratsaldeko 5etatik 7etara, Auzo Etxea ezagutzeko aukera izango dute bertaratzaren diren guztiek. 18:00ak aldera gainera txokolate jana eskainiko zaie joaten direnei

Gaurtik aurrera Konekta Zaitetz gunea bat jarriko da martxan. 2 gela izango dira hamarna ordenagailurekin. Batean nabigatzen ikasteko ikastaroak eskainiko dira eta bestean nahi duenak interneten ibiltzeko aukera izango du.

Ezkiaga Auzo Etxearen gazte eta haurrentzako zerbitzuak ere zenbait aldaketa izango dituzte aurrerantzean. Alde batetik liburutegia dugu ikasgela eta irakurgela bezala erabiltzeko, 5 eta 16 urte bitarteko guztientzat, 17:00etatik 19:30etara.

Bestetik, haur eta gaztetxoaren topagunea egongo da 5 eta 10 urte bitarteko haurrentzat, 17:00etatik 18:15etara. 11 eta 16 urte bitartekoek 18:30etatik 19:30etarako tarteak izango dute.

'Beasain Jaietan'-en ale zaharrak aurkeztuko dira

'Beasain Jaietan' argitalpena, gure herriko gora beherei buruzko jai-aldizkaria da. Beti Bizi Elkartea arduratzen da egun argitalpen honetaz eta berak egingo du aldizkari horren aspaldiko ale batzuen aurkezpenean martxoaren 14an Udaleko batzar aretoan arratsaldeko 7,30etan.

Aleok, Igor Bueno beasaindar gazteak topatu dituen Toloako artxibo historikoan. 1923, 1925 eta 1926ko aleak dira eta era guztietako gaiak aurki ditzakegu bertan: Serapio Mujikak egindako Arriaran edo Salbatore auzoetako azkerketa historikoa. Kirol kontuak ere agertzen dira. Beasain F.C.ri buruz zera dio, 1918an sortu zela talde hori Senpere izenarekin eta 1920ean aldatu zuela izena Beasain jarritz. Beste sail batean, 'Patriotismo y la Patria', 'Un poco de Ciencia' edo 'Glorias españolas' bezalako idazkiak irakur ditzakegu. Fernando Amezketaarren kontuak ere topa ditzakegu. Beste zenbait ale-tan

Txirrita eta Frantzesia bertsolariak 1923an jaietara etorri zireneko kontuak. Beste pasadizo kurioso bat ere topa dezakegu 1926ko alean: musika bandako instrumentuak Frantzian erosi omen zituzten, eta tresna horiei zegozkien zergak ez ordaintzeko, muga, kalejiran eta musika joaz pasatzea erabaki zuten.

Igartza Webgune berria

Igartza gunea ezagutzeko aukera izango dugu laster Interneten. www.igartza.net helbidean Igartzako multzoaren maketa ikus dezakegu, multzoa osatzen duten eraikin guztiekin. Maketa horretan, ezagutu nahi dugun eraikinen inguruko historia eta ezaugarriak ere azalduko dira. Burdinola, errota, ermita, jauregi eta zubiaren berri izateko aukera izango da beraz web hori honetan. Marrazki bizidunen filmetako estiloa dauka. Gainera, bisita nahi den modura egin daiteke orria erabat interaktiboa baita.



Azkue Literatur lehiaketan saritua

Itsaso Munarriz eta Irati Goikoetxea sarituak izan dira Euskaltzaindiak antolatutako Azkue Literatur lehiaketan. 238 olerki eta ipuin aurkeztu ziren lehiaketara. Itsaso Munarriz idiazabalarrak, Loinazpe institutuko ikasleak, bigarren saria jaso du 'Ame-

tsa egia bihurtuko ote da?' ipuinarekin.

Irati Goikoetxea beasaindarra, Txindoki-Alkartzasuna institutuko ikasleak, ere bigarren saria jaso 'Globalizazioa kapitalismoaren mozorroa' olerkiarekin. Ipuinetan ere aipamena jaso du.

Mus txapelketa Arranon

Bihar, martxoak 9, XII. Arrano mus txapelketa jokatu da arratsaldeko 4,30etan hasita. 4 erregeetara jokatu da, 30 tantuko 3 usteletara. Izen ematea Arrano tabernan egin behar da arratsaldeko 3,30etan. Bikoteko 20 Euro ordaindu beharko da. Sariak: irabazlearentzat 750 Euro eta txapela. Gainerako sariak, 2.enetik 4.era, 375 Euro, 190 Euro eta 90 Euro.



HAURREN ERRITMO BIOLOGIKOAN OINARRITUTA DAGOEN METODOLOGIA

EZAUGARRIAK

- 0-3 zikloa bere osotasunean eskaintzen duen Beasaingo zentro bakarra
- 23 urteko esperientzia
- Giro euskalduna (D eredua)

BALDINTZAK

- LOGSE legeak eskatzen dituen baldintzak beteaz, umeei begira eta beraien neurrira pentsatu eta egindako eraikuntza.

METODOLOGIA

- Ziklo osoan (0-3) hezitzaile bera (haurra hezitzailearen arteko lotura afektiboa mantentzeko).
- 1-2 eta 2-3 taldekoekin eguneroko irteerak. Izan ere Haur Eskola natura aldetik oso toki aberatsean kokatua dago, non haurrak ingurunearekin erlazio zuzena izatera iristen dira. Ingurune hau oso zabala eta osatua dago, bertan aurki ditzazkegu: Dolarea parkea, Gernika parkea, Antzizar kiroldegia, Loinaz futbol-zelaia, Loinazko ermita, San Martin ermita, Iturralde parkea, Azoka...
- Haurren taldekatzea adinaren arabera:
 - ✗ 0-1: **TXIKIAK**: hezitzaile bakoitzeko 6 ume.
 - ✗ 1-2: **ERTAINAK**: hezitzaile bakoitzeko 8 ume.
 - ✗ 2-3: **HANDIAK**: hezitzaile bakoitzeko 10 ume.
- Gurasoekin harreman zuzena eta estua (adin txiki honi dagokion bezala).
- Psikomotrizitate gela.

ZERBITZUAK:

- Bertako sukaldean prestatuturiko janariak.
- Ordutegi zabala: goizeko 7,00etatik arratsaldeko 18,30ak arte.

MATRIKULA EPEA IREKITA DAGO

Soldaketa gizone



24 Posta Kutxa ☎ 943 88 00 62 / 66 Faxa: 943 88 83 51 ORDIZIA
E-posta: bulegoa@goierrieskola.org Web: www.goierrieskola.hezitek.net

*Oraindik ere metal eraikuntzen lanbidea, zikin,
gogor eta gizonena dela uste duenik badago.
Jakizu teknologian berrikuntzarik handienak
erasaten ari den industri alorra dela eta bertara
emakumeak arrakastatsu sartzen ari direla.*

Anima zaitez !



Ainhoa Loza
idiazabalدارra, 27 urte

Protesiko Dental ikasketak egin eta lanik ez nuenez aurkitzen, INEMek emakumezkoentzat antolatutako soldadura ikastaroa egiten hasi nintzen. Irakasleek animatuta, Eraikuntza Metalikoetako Goi Mailako zikloa egin nuen. Uztailan, Legorretako Eredu kooperatibatik deitu ninduten, praktikak egitera joateko.

Bi urtean Goierrin ikasi eta Eredun lanean aritu nintzen. Moduloa bukatutakoan, bazkide egiteko eskaini zidaten eta ordutik Eredun nabil.

Soldadura atalean hasi nintzen. Latolarekin soldatzen genuen, autogenarekin batez ere, baina semi-automatikarekin ere bai, robotaren bidez. Orain, produktu berrien garapen atalean nabil. Ordenadoreetan, plantilak eginez, akatsak konponduz.

Soldaduraz neukan aurreritziā ez da bat etorri gaur egun dudanarekin. Maoizko buzoa, aurpegi zikina, lantoki ilun eta zikinak... ez dauka zertan horrelakoa izan behar.

Emakumezkoek berdin egin dezaketena da. Kasu puntual batzutan indarra eskatu dezake, baina gaur egun gruak-eta daude.

Ez naiz damutu sekula soldadura ikasketak egiteaz eta neskak animatu nahi ditut. Lana gainera badago.

en kontua al da?



Idoia Esnaola
beasaindarra, 23 urte

Goierrin administrari ikasketak egiten hasi nintzen baina ez nituen bukatu. Ezer egin gabe nengoen eta Goierrin soldadura ikastaroa zegoela jakin nuen. Hastea pentsatu nuen. 775 orduko ikastaroa egin nuen, ikasturte guztikoa.

Praktiketan berehala hasi nintzen. Gero, asteburuetako kontratuarekin Legorretako Eredu kooperatiban hasi nintzen. Orain, urtariletik, kontratu normalarekin nabil, astean 40 ordu, hiru errelebotara. Robotarekin lan egiten dut, aulkien egiturak eginez.

Aita soldadorea da eta mundu hori ezagutzen nuen pixka bat. Nire aitak egiten duen lanarekin eta nik egiten dudanarekin ez dauka zerikusirik. Nik robotarekin lan egiten dut.



Maria Anjeles Iztueta
Abaltzisketakoa, 42 urte

Denda batean lan egiten nuen eta langabezian gelditu nintzen 40 urterekin. Haurrak zaindu, etxeko lanak egin, zerbitzari lana... besterik ez neukan aukeran, ikasketarik ez bainuen. Langabezian gelditu eta bi hilabetera, emakumezko langabeentzat ikastaroa zegoela jakin nuen,



Edurne Gutierrez,
ordiziarra, 22 urte, ikaslea

Rem eta Batxilergoa egin nituen. Gero, Proiektu mekanikoen garapena zikloa egin nahi nuen baina ez ninduten hartu. Eraikuntza Metalikokoan proba egitea pentsatu nuen. Aurretik nuen irudiarekin ez dauka zerikusirik eta gainera oso giro ona daukagu ikasleон artean, baita irakasleekin ere.

9 soldadura mota edo teknika ikasi ditugu. 3. ebaluaketan robotak programatzen ikasiko dugu. Teknika guztietan ikasiko dugu oinarria.

Gustura nago egin dudana aukerarekin. Meskei zera esango nieke: etorri, ezagutu eta proba egin dezatela, guk egin dezakegun lana delako.

ez zuten ikasketarik eskatzen. Eskulanak beti gustatu izan zaizkit eta proba egitea erabaki nuen, gero ere aukera izango bainuen haurrak zaindu edo horrelako lanetarako.

Soldadura zer zen ere ez nekien. Tailer batean sekula ere sartu gabe nengoen. Ia urtebeteko ikasturtea bukatzerako lanean ari nintzen.

Hasieran gogorra egin zitzaidan, ohiturarik ez eta indarrik ez nuen, bateko eta besteko minak izan nituen. Orain gorputza ohitu egin da, ez daukat arazorik. Beasaingo Estructuras Francisco enpresan ari naiz lanean. Gustura nabil. Astebeteko epea eman zidaten lanean moldatzeko eta lortu nuen.

Orain arte lanak sailkatuta egon dira, gizonezkoenak eta emakumezkoenak, eta hori pixkanaka aldatu beharko da. Emakumezkoek ausartzeko esan nahi diet, animatzeko. Behin sartuz gero, beti egoten da zerbait.



Lore eta landareen *udaberriko* II. azoka

2002ko Martxoak 24 Segura

EGITARAUA

★ 10:30ETAN, AZOKAREN HASIERA OFIZIALA

- Lore eta landare erakusketa eta salmenta
- Artisautza eta bertako produktuak

★ IKUSKIZUNAK

- BASERRIKO ARGIA *Juan Gorritiren* eskulturak
- Errementariak lanean
- Idi perratzea
- Eliza, Aste Santuko pasoak

★ ARRATSALDEZ

- Erromeria, erraldoi eta buruhaundiak

SE
GU
RA

HERRIKO ELKARTEAK ETA
ANTOLATZAILE



hilean

euro

1

Goierritarra
etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefona: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz
eta hala izaten jarraitu nahi dut ☐

Ez naiz Goierritarraren harpide
eta hemendik aurrera izan nahi dut ☐

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)
kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik

Bola saioa martxoaren 23an

XIV. Goierriko txapelketaren 6. saioa Segurako Txoritegi bolatokian jokatu da martxoaren 23an, goizez 11:00etatik 12:00etara eta arratsaldean 16:30etik 17:30era.

Emaiza aipagarriak: Erregularitate txapelketa, otsailaren 24ko Benta Berriko saioan, Antonio Agirre 3. geratu zen (46 birla). Goierriko txapelketan, martxoaren 2ko Gabiriako saioan, Xepiñ Agirrek 2. egin zuen (47 birla) eta sailkapenean 2. doa. Endika Alustizaren oroimeneko saioan, martxoaren 3an, Zerainen Antonio Agirrek 3. postua lortu zuen.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonialak:** Ilintxa 1-1 Segura. **Jubenilak:** Segura 2-3 Idiazabal. **Kadeteak:** Mutriku 0-0 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 3-4 Antiguoko.

Labur-labur


- Gaur, martxoak 8, Elorri Kultur Elkartek antolatu duen Getariako Gaintza **txakolindegira irteera**, 19:30ean plazan autobusa.
- **San Jose kofradia.** Aurtengo kobraketa martxoaren 19an egingo da eguneko mezen aurretik eta ondoren, Ospitalpean jarriko den mahaian.
- **Errifak.** Txirrindulari Elkartekoek euren gastuei eta Elorri K.E.ek Iparra-Hegoakoei aurre egiteko errifak atera dituzte. Herriko tabernetan eskura daitezke.
- Atsedeen Jubilatuen Elkarteko **karta txapelketen finalak** martxoaren 18an jokatu dira. Brixka, puntu, tute eta musean, lehen eta bigarren postuak iluntzean erabakiko dira elkartean bertan.
- Beste zenbait herri sarreratan jarri diren **ibilbide turistiko**en panel nagusia jarriko da Madalenan. Bertan, Segurari buruzko irudi lausotua azaltzen da.

Eskolarteko XV. ibilaldi neurtua Seguran

Goierri eta Urola Garaiko 500 ikasle inguru espero dira igande honetan

Kirol eskolarraren barne, XV. eskolarteko ibilaldi neurtuak izango dira Gipuzkoako bost eskualdetan martxoaren 10ean. 1996ko martxoaren 24an antolatu zena bezalaxe, Goierri eta Urola Garaiko 14 urte arteko ikasleen ibilaldia Seguran izango da. 500 ikasle inguruz gain, hainbat guraso eta laguntzaile espero dira. Hau guztia antolatzen, herriko mendi elkarteak dabilta zenbait zeraindarren laguntzarekin.

Mendizaleek goizeko 8,30etan dute zita herriko plazan. Bertatik irtenda, 12 km-ko ibilbidea egingo dute, Segura, Mutiloa eta Zeraingo plazan, hamaiketako izango dute. Taldeak, gutxienez hiru eta gehienez bost lagunez osaturik egongo dira. Talde bakoitzak kontrol txartel bat eramango du ibilbidean egongo diren hiru kontroletan erakusteko. Ibilaldi guztia egin eta kontrolak pasatzen dituzten taldeak sailkatutzat joko dira. Ibilbide neurtua izanik, partaideek lortu beharreko helburua erregularitasuna izango da eta ez bizkortasuna.



Ibilaldi neurtuaren ibilbidea eta perfla.

Asteburuan etxean: Kadeteak: Aizkorri-Zarautz (zapatuan, 11:30ean). **Errejonialak:** Segura-Gazteak (zapatuan, 16:30ean).

Joseba Telleria



Eneko Agirrezabal, Ordiziako San Silbestreko sarietara.

Euskadiko txapelaldun 1500ean

Eneko Agirrezabal jubilen mailako Euskadiko Txapelaldun geratu zen 1500 metroetan (4.19) pista irekian pasa den otsailaren 17an, Durangon. Ordiziako Txindoki Atletismo Taldean dabil Eneko eta lehen urtea du jubilenetan. Otsailaren 23an, Donostian jokatuak pista itxiko Euskadiko Txapelketan 5. postua lortu zuen 800 metroetan.

IV. Pintura lehiaketa margolari nobelentzat Apirilaren 8tik 14ra burutuko den Iparra-Hegoaren barne

Iparra-Hegoa astearren antolatzaileek apirilaren 13rako iragarri dute nobelentzat antolatu ohi duten lehiaketa. Gaia: Segurako edozein irudi edo txoko. Zapatu goizeko 9etara herriko plaza-azaldu beharko da, norberak materiala ekarriz. Sariak: 1.ari 300 euro, 2.ari 210 euro eta 3.ari 120 euro. Aipamen bereziarentzat 60 euro. Partahartzaileentzat bazkaria. Lan hobereenen aukeraketa Joxemari Telleria, Patxi Epelde eta Jokin Telleria margolarien egingo dute arratsaldean Kultur etxean. Sariak ere bertan banatuko dira. Lanak, herriko tabernetan jarriko dira ikusgai eta salgai. Iazko edizioan Euskal Herri osoko 27 margolarik parte hartu zuten. Informazio gehiago Elorripe tabernan (943801002).

Manuel Iglesiasen 'Mundu bat bakean' lan berria

Manuel Iglesias eskulturgile beasaindarrak aspaldidanik gure herriko Telleri baserrian du bere estudioa. Bertan burutzen ditu ondoren kale, enparantza eta beste hainbat lekuetan jarriko diren eskultura bozeto eta maketak.

Manuel Iglesiasen lanaren nondik norakoak gertutik ezagutzeko asmoz berarekin izan gara. Urrian aurkeztu zuen "Mundu bat bakean" eskulturaren bozetoaren garapena nondik nora joan den zehatz-mehatz azaldu digularik.

Aipatu eskulturaren bozetoa Telleri baserrian duen es-

tudian osatu zuen, eskultura bera berriz dituen neurriengatik bertan eratzea ezinezkoa gertatu izan zaionez beste baliabide batzuk erabili beharrean aurkitu izan da. Aitzitik lerro hauetatik Jose Manuel Kanposi biziki eskertu nahi dio berarengandik jaso izandako laguntza, eskulturgintza garatu ahal izateko urte guzti hauetan Telleri baserria bitarteko jarritz eman izan dion laguntza goraipatu nahi du.

Manuel Iglesias eskulturgilearen "Mundu bat bakean" eskultura Zamorako Plaza Nagusian kokatu da, bere aurkezpena ere bertan egin zen "Gazteak milurteko be-

rraiaren atarian" deituri-ko jardunaldien barnean izan zelarik.

"Mundu bat bakean"

Bere estudioa gure herrian duen aipatu eskulturgile honentzat lan berri hau erronka handi bat izan dela aditzera eman digu Manuelek berak. Hain zuzen neurri handiak dituen eskultura baten aurrean aurkitzeaz gain, era berezian osaturiko eskultura dela azpimarratu digu.

Maketaren eraikuntza lanetan lau hilabete eman zituen, bera harri-kartoez eraiki zuen, Telleri baserrian montatu zuelarik.

Maketa aurkeztu ondoren eta bertatik abiatuz behar bezalako benetako eskultura eraiki arte beste hiru hilabete-etan lan burutsua burutu izan du. Azkenik bilakaera guztia- ren emaitza, 3.000 kilo eta



zazpi metro inguruko eskultura da. Oinarria Burgosko harri bolkanikoz eraikia du; gainontzekoan eskultura moduloka osatua dago, laserreko mozketa erabili da eta tig sistemaren bitartez soldatua dago.

Aitziber Murua

Joan zaizkigun herritarrekiko oroitzapena

Azken hilabeteetan gure arte- tik joan zaizkigun herritarrak gogora ekarritz oroitu nahi ditugu. Aipatu oroitzapena hilabete batzuren buruan egiten dugu, azkena egin genuenean eta epaitegitik ateratako zerrendan agertzen ez zenez, inolako asmo txarrik gabe, Anastasia Lasaz ez ginen oroitu. Ondorioz lerro hauetatik barkamena eskatzen diegu bere senditarrei samin agurra bidaltzen diegun bitartean. Gure asmoa inor ahaztea ez denez aurrerantzean saiaturiko gara horrelakorik gerta ez dadin.

Urte amaierara hurbiltzen ari ginela Valentina Gurru-

txaga eta Maria Josefa Lasa herritarrei agur esan beharrean izan ginen. Herrian bizi zen Tomasa Mayor ere gure arte- tik joan zelarik. Guztien senditarrekin atsekabea bat egiten dugu gure samin agurra bidaliz.

Urte berria hasi eta errege bezperako ospakizunetan murgildurik aurkitzen ginela, Jose Galdos Mendizabal ustekabeko bat-bateko baten ondorioz larri aurkitzen zenaren berri zirragarria iritsi zitzaigun. Errege egunean Jose Galdosek betirako utzi gintuen. Gazterik, 49 urte besterik ez zituela utzi gintuen Jose Galdosen heriotzak benetako samina sortu izan digu. Jose besteengana ematen zen gizona zen, edozein beharren aurrean besteei zerbitzatzeko inolako mugarik

jartzen ez zuena, herrian makina bat auzolanetan partaide izana. Gure besarkadarik bihotzekoena eta samin agurrik sentikorrenak emazte Kontxi Agote eta alaba Maialeni.

Joserekin batera aurtengo urtean beste bi herritarrei ere azken agurra eman beharrean izan gara. Hain zuzen otsailaren hamarrean Felix Santamariak betirako utzi gintuen. Felix azken hilabeteetan hainbat gaixotasunen eraginez ondoezik egon izan da. Une guztietan bere alaba Loli izan du bere alboan, neurri gabeko maitasuna eta laguntza eskainiz. Honegatik une latz hauetan gure besarkadarik sentikorrera bidaltzen diogu Loliri berarekin saminean bat egiten dugularik.

Azken egun hauetan Aranguren Azpikoa baserriko Antonio Aseginolazaren ustekabeko heriotzak ere benetako samina sortu izan digu. Antonio gizon atsegina zen, herrira etorri eta herritarrekin hizketaldian aritzea gustokoa izaten zuen. Gizon estimatua zen ondorioz bat-bateko bere heriotzak benetako samina sortu izan digu. Emazte Bittorik, seme-alaba Maria Pilar, Andoni eta Maria Jesus, ezkon seme-alaba eta gainerako senditar guztiekin atsekabea bat egiten dugu gure samin agurra bidaliz. Aldi berean Antonioren hileta elizkizunetan parte hartu eta senditarrekin saminean bat egin izan duzuen guztiei, eskerrik beroena bidaltzen dizkizue Antonioren senditarrek.



Ostatuaren ustiapenerako eskaintzentzat epea martxoaren 18ra arte

Zegamako Ostatuan obra garrantzitsuak burutzen ari da Zegamako Udala, taberna eta sukaldean aldaketa garrantzitsuak burutzen ari baita. Bestalde, obrak bukatutakoan martxan jartzeko asmoa dago eta bere ustiapenean interesa duenak epea martxoaren 18 arte du eskaintzak aurkezteko. Informazio gehiagorako Zegamako Udaletxera jo bezaz. 943 801115

Garizumako hitzaldiak parrokian

Urteroko legez, datorren martxoaren 11, 12 eta 13an hitzaldiak izango dira Zegamako Parrokian Iñaki Bereziartuaren eskutik. Ordua iluntzeko 20:00etan.

Martxoaren 14an berri

gazteleraz egingo du eta ordua hemen ere iluntzeko 20:00etan izango da.

Hitzaldiek, iazko Garizuma-Pazkoatarako Gotzainek argitaratutako eskutitza izango dute oinarri, eta bereziki fedearen transmisioa izango da.

Tobera Musika Eskolako entzunaldiak

Martxoak 12: Pianoko entzunaldia gauzatuko da Kultur Etxean arratsaldeko 17:30etan. Bertan herriko pianoko ikasleak izango dira protagonista.

Martxoak 21: Tobera Musika Eskolako trikitixa eta pandero ikasleen entzunaldia, Kultur etxean, 17:30ean.

Hitzaldia Kultur etxean

Martxoaren 13an, Kutxak lagundurik, Euskal Herriko musika, dantzak eta abestiak gaitzat harturik, hitzaldia izango dugu Daniel Ugaldere eskutik. Ordua iluntzeko 19:00etan. Euskal Kulturaren zaleok aukera ederra dugu gai interesgarri honi buruz kalitatezko informazioa jasotzeko.

Donato Goienetxe Kultur etxean

Martxoaren 14an, iluntzeko 19:30etan, musikaren sekretuak eta bestelakoak kontatuko dizkigu Donato Goienetxe musikari adituak. Musika entzun eta bere esanahiari buruz komentarioak egingo ditu.

Euskararen eguna

Martxoaren 14 eta 15ean Euskararen Eguna izango dugu Zegaman, hori dela eta Zinean Aitxuri Herri Eskolako ikasleek hainbat ekintza burutuko dituzte; jakin dugunez, antzerki, dantza eta abesti ugariz gozatzeko aukera izango dugu. Emankizunak arratsaldeko 14:30etan hasiko dira.

Zinea Kultur etxean

Martxoaren 10ean, "Arraina naiz" filmea izango da ikusgai Kultur Etxeko bideogelan, Aizkorri Gurso Elkartearen eskutik.

Jubilatuak sagardotegira

Datorren martxoaren 14rako Aduriz Sagardotegira joateko asmoa dute jubilatuek eta bertara joan nahi duenak ize-na Jubilatuen Elkartean eman behar du martxoaren 12an arratsaldeko 16:00etatik

19:00etara. Bidai honetan parte hartzeko ez da beharrezkoa bazkidea izatea. Plazak mugatuak direnez autobusa betetakoan ez da izen gehiago hartuko.

Eduarne Albizu

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Mariarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



ZEGAMA
OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osina.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabal**go Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

☎ 943 88 28 21
☎ 943 16 07 06
ORMAIZTEGI

Etxegarateko bikoizketa bukatzeko epea

Ekainaren 18rako Etxegarateko bikoizketak bukatuta egon behar duela jakinarazi die Gipuzkoako Diputazioak lanak egiten ari diren enpresei. Bestela, Diputazioak zigorra ezarriko die.

Berez, lanak bukatzeko epea, aurtengo otsailaren 28an zegoen jarrita. Urrian, Etxegaraterara bisita egin ondoren, Antton Jaime Errepide Diputatuak esan zuen lanak otsailarako bukatzea ezinezkoa izango zela. Lurra mugitzera-

koan izandako arazoak argudiatu eta lanen bukaera 4 hilabete (ekainaren 18ra arte) atzeratu zuten. Lanean ari diren enpresek, ordea, hilabete gehiago (uztailaren 18rarterko) eskatu dute. Diputazioak dio, lurrarekin izandako arazoek ekaina bitarteko atzerapena baino ez duela justifikatzen. Hori dela eta, ekainaren 18rako lanak bukatu gabe baldin badaude, Estatuko Kontratuen legea erabiliz, enpresariak zigortuko ditu Di-

Odol emaileak

Odol emaileak gustura daude urtarilean egindako ateraketan izandako emaitzarekin. 72 odol poltsa bildu zituzten eta 5 lagun joan ziren lehendabiziko aldiz odola ematera. Hurrengo aukera ekainean izango da eta ordurako herritar guztiei, bereziki gazteei odola emateko deia egin dute Odol Emaileen elkarteak.

Lanpostuak

Udalak, Administrazio laguntzailea eta Kiroldegiko arduraduna aukeratzeko deitu dituen lehiaketetan parte hartzeko izena eman liteke dagoeneko. Udaletxean daude bete beharreko agiriak eta lehiaketa publikoan parte hartzeko arauak.

Ikastaroak

Udalak ondoko ikastaroak antolatu ditu udaberrirako: Taila, Informatika, Buztingintza (haurrentzat eta helduentzat), Hari-lanak, Pintura dekoratiboa eta Sendabelarrak. Izena emateko epea martxoaren 14an, osteguna, bukatuko da. Informazio gehiago Udaletxean edota Kultur Etxean

putazioak.

Otsailaren 25ean, Etxegaraterako egindako bisitan, Antton Jaimek esan zuen orain arteko atzerapena, besteak beste, Ursuaran sartu eta irteteko egiten ari diren bideetan aurkitu dutela. Beste zati batzuetan ere lanak oso atzeratuta

daude.

Azken egunetan, auto eta kamioi ilara luzeak sortu dira Idiazabalgo bariantean. Bikoizketa egin ahal izateko trafikoa desbideratzeko bideak egiten ari dira Etxegaraten.

Xabier Urteaga

**"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"**



K. Nagusia 35 Elozegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldeko altzari
nahiz osagarrietan aukera paregabea
☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



**MUJKA
LIBURUDENDA**

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Argitarapen honen edizioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza



Zaharra eta Pototo gogoan

Martxoan ailegatzearekin batera, Nikolas Mendizabal "Zaharra" eta Anjel Mari Galarra "Pototo"-ren heriotzaren urteurrenak ditu gogotan herriak. Zaharra orain 25 urte hil zuten Ezkion eta Pototo duela hamasei Donostian. Kari horretara, igandean, hilaren 10ean, bazkaria egingo da Zubi-buru elkartearen. Aurrez, herri poteoa egingo da trikitilariekin eta honi plazan egingo den ekitaldi txiki batek emango dio jarraipena. Gaur, 25 urte betetzen dira Zaharra hil zutela eta, hori dela eta, lore eskaintza eta agurra dantzatuko dute bere jaiotetxearen aurrean. Hilaren 14an, datorren oste-

gunean, ekitaldi berbera egingo da Pototo zenaren jaiotetxearen aurrean.

Emakume eguneko afaria

Damixelak antolatuta, gaur gaueko 21:00etan afaria egingo da Joxepanen emakume langilearen nazioarteko ospatzeko. Entsalada, zopa beroa, redondoa saltsan, mamia eta kafea izango da egun honetarako menua eta 15 euro kostatuko da. Afal ondorenean Emakume Baserritarren Elkarteko (EBEL) kide batekin solasaldia izango da eta gero bideo emanaldia Joxepaneko jangelan.



Joan Mari Olanoren epaiketa

Honezkero jakingo duzueenez, Juan Mari Olano iazko abenduan atxilotu zuen Polizia frantsesak Baionan eta harrezkero Paueko espetxean eduki dute. Bilatu eta atxilotzeko agindua-ekin sartu zuten kartzelara eta gaur, hilak 8, epaituko dute Pauen. Olanok 13 egun daramatza gose-greban eta Espainiara entregatua izateko arrisku bizia du. Hurrengo alean izango duze berri gehiago.

Tolosako bikote bat musean nagusi

Bihar hamabost egun izango dira Zubi-buru elkartearen mus txapelketa jokatu zela. Orduan eman genizuen beraren berri eta oraingoan sailkapenaz hitz egingo dugu. Dabid Etxabe eta Fernan Zubeldia bikote tolosarrak irabazi zuten txapela Manuel Mendizabal eta Jabier Jauregi finalean gailendu ondoren. Hirugarrenak Tolosako Joan Ander Colas eta Jose Luis Beraza gelditu ziren eta laugarrenak Leitzako Balantx Zabaleta eta Juanbau Ansorena. Guztira 119 bikote hurbildu ziren elkartera musean egiteko as-

motan eta horietako 26 herrikoak izan ziren.

Jakoba Rekondoren solasaldia Zaharren Egoitzan

Fruitu arbolak, landareak... nola zaindu gaitzat hartuta solasaldia izango da datorren asteazkenean, hilak 20, Beti Gazte elkartearen. Solasaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da.

*Inaki Gurrutxaga
Saroï Jauregi*



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
943 88 87 02
BEASAIN

KEMEN KIROLAK





Euskal Herriaren historia fosilen bidez

Aste honetan bertan zabaldu dute Lazkaoko Kultur etxean Euskal Herriaren historia biltzen duen fosil erakusketa. Jose Angel Torres eta Luis Ignacio Vieraren argazki eta testuez baliatuz, erakusketa honek Euskal Herrian 500 bat mila urteren buruan jasan dugun garapen geologikoa azaltzen digu.

Ia 500 mila urte; denbora luzea da zalantzarik gabe. Garai hartan Euskal Herri osoa urpean zegoen oraindik eta oso zaila da orduko datuak lortu eta ikerketak egitea. Halere, jakin badakigu, orduan ere hainbat izaki primitibo bizi zirela egun Euskal Herria den eremu honetan. Garai hartako landare eta animalia bitxienak ezagutzeko modu bakarra dugu: beren ingurugiroaren testuinguruan sartuta geratu ziren hainbat eta hainbat. Fosil guzti hauen argazkiak lortu dituzte erakusketa honen egileek eta orain apirilaren 27a bitartean

ikusgai izango da Lazkaoko Kultur etxean. Lazkaoko udalak Kutxaren laguntzaz antolatutako erakusketa hau arratsalde, 6etatik 8etara, egongo da zabalik Euskal Herriaren historia beste alderdi batetik ezagutu nahi duten guztientzako.

Emakumearen astea

Aztik, Lazkaoko emakumeen elkarteak, emakumearen astea antolatu du martxoaren 8aren inguruan. Martxoaren 6an, irteera antolatu zuten Donostiako "La perla" balneariora. Martxoaren 7an berriz, "Los Puentes de madison" filmaren proiektzioa eta ondoren bideoforumaren egin zuten Yolanda Cervero psikologoarekin batera. Eta asteari amaiera ona eman eta emakume langilearen eguna ospatzeko, afaria eta dantzaldia antolatu dute martxoaren 8 gauerako. Ekintza ugari beraz, Lazkaoko emakumearen aste honetan.



Ekain Arruabarrenak txirrindularitza utzi du

Txirrindu gaineko konpetizio edo lehiaketa utzi du Ekain Arruabarrena lazkaotarrak, baina zaletasuna ez zaio joan. 1997an Espainiako txapelketa irabazi zuenez geroztik hor ibili da urtez urte txirrindu gainean. Eta ez nola hala

gainera: iaz Estatu Batuetan ere izan zen munduko txapelketan lehiatzen.

Ekain Arruabarrena "ezindu" geratu zen txirrinduz zihola, auto batek kolpez jo zuenean. Baina bere ezintasun hau ez da inoiz Ekainentzako traba izan, eta hori argi agertu du txirrinduan zein eskian esku hartu duen lehiaketa guztietan. Borondatea eta gogoa izan ditu beti Ekainek, eta horrek lagundu dio aurrera ateratzen. Asko lagundu diote baita ere Lazkaoko Kemen kirol- osasun zentroan eta Beasaingo Jokin Mujika txirrindu dendan lan egiten duten langileek ere, eta hemendik eskerrak eman nahi dizkiela esan digute Ekain eta bere ama Mila Aldasorok.

Iazko apirilean, Ekain berrir txirrinduz zihola, beste auto batek jo zuen. Orduan belaunean hartu zuen min Ekainek eta iazko denboraldian ezin izan zuen txirrindularitzan egin. Oraindik belauna guztiz sendatu gabe daukala eta, txirrindularitzako lehiaketa uztea erabaki du Ekainek. Lehiaketa utziko ditu, baina ziur oraindik karrera guztietan ibiliko dela orain arte bere taldekide izan direnak animatzen. Txirrindularitza utzi du, baina eski lehiaketan aritzeko ondo jartzea espero du Ekainek. Ia bada, Ekain laster osatu eta berrir eski gainean lehiari ikusten zaitugun!

Oihana Sarasola



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gasa

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea ORDIZIA

ARRIETA

JATE TXEA

943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



mazda

Bikar, S. A.



943 889 296 Faxa: 943 887 952
N-1 errepidea, 419 Kma BEASAIN



Tresna zaharren bilketa eta erakusketa

Ataungo Udalak, maiatzetik aurrera, herrian, garai bateko baserri edo beste lanbide batzuetako tresna, altzari, dokumentu eta abarren katalogoa osatzeko lanari ekin behar dio. Ekimen hau, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi Zientzi Elkartearekin batera antolatu da eta etnologia arloko Zaharkinak programaren barnean egingo da. Ondoren ekainetik uztaile bitartean, kiroldegian, erakusketa antolatuko da interesgarrienak jo diren pieza guztiekin.

Helburu nagusia, bizimodu oso azkar aldatzen ari den aro honetan, gure arbasoen bizimoduaren adierazgarriak galdu eta desagertu baino lehen, herriko baserrietan eta bere inguruan erabili izan diren tresna, lanabes, altzari, eta hain urruti ez dugun bizimodu hartako beste gauza interesgarri guztien arakatea eta inbentariatzea da.

Udalak oso garrantzitsua jotzen du ekimen hau Ataunen burutu ahal izatea. "Gure izaerari eusteko modu bikain bat delako, Iraganik gabe ez dago etorkizunik".

Hau dena burutu ahal izateko herritarren laguntza eskatu du udalak. araketa egiteko behar diren taldeetan parte hartuz. "Esperientzi hau oso garrantzitsua bihurtuko da parte hartzen dutenentzat,

Argazki lehiaketa 2002

Udalak, Argazki Lehiaketa 2002ko deialdia egin du. Deialdi honen asmo nagusia, argazkietan, Ataunen bil daitezkeen gai berezienak edota erakargarrienak erakustea da, paisaia, bizimodua, baserriak, eraikuntza historikoak... Argazki irabazle eta hautatu daitezkeen beste batzuekin Ataungo postalak egingo dira. Hiru sari izango dira: 1. 60.000 pzta. 2. 25.000 pzta. 3. 15.000 pzta.

Parte hartzaile bakoitzak gutxienez 3 argazki eta gehienez 9, aurkeztu beharko ditu. Argazkiek, gai desberdinak adierazi behar dituzte. Argazkian, derrigorrezkoa da Ataun identifikatu ahal izatea. Argazkiak koloretan nahiz zuri beltzean izan daitezke. 20x25 zm dituen argazki paperetan. 24 x 30 zm dituen kartulina batean erantsita aurkeztuko dira. 8.a Lanak udaletxean aurkeztu beharko dira 2002ko abenduaren 1a baino lehenago.

gure gurasoek ez hain aspaldi bizi izan duten bizimoduari gerturatzeko eta hobe eza-gutzeko balio izango baitie". Udaletik adierazi dutenez, beste herrietan izan diren emaitzak ikaragarriak izan dira.

Guzti honetaz interesa duzuenontzat hitzaldia antolatu da. Bertan nola antolatzen den, beste herrietako esperientziak erakutsi eta Ataunen

nola burutuko den azalduko dira besteak beste.

Hitzaldia

'Tresna zaharrak Ataunen' gaiaz hitzaldia emango du Fermin Leizaolak martxoaren 15ean, ostirala, iluntzeko 8etan Oargi Troskaeta elkarrean.

Agurtzane Bikuña

laburrean

Dioni Galparsoro berriro garaile

Bigarren urtez jarraian lortu zuen Dioni Galparsoro ataundar txirrindulari gazteak Caja Cantabriako lasterketa prestigiotsu irabaztea joan den larunbatean. Caja Ruraleko txirrindulariak iazko urtean ere lasterketa honez gain, asteburu berean irabazi zuen Laudioko Saria. 24 urte beteak dituen honetan, badiurdi profesionalelara pasatzeko azken aukeraren aurrean dagoela.

Astebururako kirol egitaraua

Areto Futboleko bi partidu jokatu dira **ostiralean**. 20:30ean lehena eta 21:30ean bigarrena. Lehen partidua autonomiko mailako Ataun Avia eta Txanela taldeen artekoa izango da. Bigarrena Ataun Bitor eta Tecnun taldeen artekoa, hauek bigarren mailakoak.

Esku pilota partiduak izango dira, 22:00ean hasita. Nagusien 2.mailako partidua Ataun eta Lazkaoen artekoa izango da. Jubenilen 2. mailakoan berriz, Aretxabaleta eta Ataungo pilotariak arituko dira.

Larunbatean, martxoak 9, 11:00etan, neska kadeteak arituko dira **areto futboleko**. Loinazpe Ataun eta Laskorain taldeak. 12:00etan, Loinazpe Ataun eta Laskoraineko mutil kadeteen txanda izango da.

Egun berean baina arratsaldean, Ataungo **IX. Areto futboleko txapelketaren** barne, 15:00etan Arama eta Jubilatua arituko dira eta 16:00etan, Artadi eta Ezta Ikutua.

Hildakoa

Aiako Juana Begiristain hil berria zaigu. Doluminak sendiari.

Roman Ormazabal, 70 urte Zegamako perratzailea eta erremintaria

"Olaberri auzoan, erremintariaren etxean bizi izan ginen. Anai batek ofizioa ikasi zuen. Nik ere zerbait bai. Anaia Nafarroara joan zen eta bere etxetik bidali egin gintuen. Gurasoek erremintaria egitea pentsatu zuten", dio Roman Ormazabalek. Pentsatu eta egin eta Roman hasi zen bertan lanean. "Inprentan eta lima fabrikari aritu nintzen aurretik, 10,20 pezeta irabazten nituen. Hori irabazteko perraketa askorik egin beharrik ez zegoela eta hala hasi nintzen. Jubilatuta arte hala aritu naiz". Oraindik ere zerbait egiten du.

Lan asko izaten zuen herriko perratzaileak eta erremintariak duela 50 bat urte. Garaiak, ordeak, aldatu egin ziren. "Orain 50 urte ganadu asko zegoen. Igual egongo ziren 900-1.000 behi eta idi. Zaldiak, behorrak, mandoak eta astoak ere asko. Perratzaileak askotan egun osoko lana edukitzen zuen. Eguraldi txarra baldin bazegoen, gehiago. Egun pasa etortzen ziren asko kalera, ganadua perratzeko aitzakiarekin. Behiak hor egoten ziren marrika", gogoratzen du Roman Ormazabalek.

Ganadua asko gutxitu zen

eta perratzaile lana ere bai. Txofertzarako afizioa zuen, "perratzen baino gehiago, eta taxia jarri genuen, 1965ean. Txofertzan ateratzen ziren beste lanetan ere aritu nintzen, autobusetan eta abar". Txofertza, erramintari eta perratzaile lanak uztartu zituen 1965etik jubilatuta artean. Soldadutzara Santanderra joan zen eta han ere perratzaile lanean aritu zen.

Sutegian ere lan asko

Perratzeaz gain, sutegian ere lan asko izaten zen. "Erramintak zorrozten, txapuza lana beti izan da. Gurdia erantzako gurrpilak, balkoiak, burdinezko atekak... denetik egindakoa naiz. Burdin tiratzen porrika, lan gogorra zen". Behi eta idientzako perrak Zegamako perrategitik lehenengo eta Logroñotik gero, ekartzen zituen. Asto, zaldi, behor eta mandoentzat, Romanek berak egiten zituen. "Behi eta idientzako perrak, txaparekin, burniarekin egiten ziren. Besteentzat, pletinatik, egiten ziren, dena eskuz, sutegian berotuz, mailukadak emanez. Fabrikatan ez zegoen eta norberak egin behar", gaineratu du zegamarak.



Neurri ezberdinetako perrak zeuden. 1etik 6ra bitarteko neurrikoak. 3 eta 4 neurria zen ohikoena.

Perratzearen helburua zein den galdetu diogu Romani: "animaliak inñustan ibiltzen dira. Gu ere ondo ibiliko ginen inñustan, aberatsak izan eta alfonbran, lanik egin beharrik gabe ibiliko bagina. Baina lana egin behar izanez gero, zokal onak behar dira. Ganaduari berdin gertatzen zitzaion. Larrean eta lanik egiten zuten behiak nekeza zen perrak behar izatea. Baina hemen ganaduak lan asko egin behar izaten zuten, uzta-rrian, bide txarretan... Perra derrigor behar izaten zuten hemengo parajeetan".

Behiaren kasuan, hanke-tan izaten zituzten zauriak sendatu ondoren jartzen zitzaizkien perrak. "Jabeak perratokira sartzen zuen ganadua. Nahi ez bazuen ere, poliki sartu. Altxa pixka bat, tri-papetik, hanka altxatu, eta mina sendatu. Albaitariak ez digu erakutsiko min hartutako hankarik sendatzen", esan digu Romanek.

Batez ere, zaldi, behor, mando eta astoak perratzen



ziren. "Kaballeria dezente perratzen zen. Urbiako artzainek joan-etorritako eta generoa eramateko kaballeria erabiltzen zuten".

Perratoki portatila

Perratokiak enbarazu egiten zuenez eta lan gutxi zegoenez, beste sistema bat asmatu zuten duela 20 Romanek: perratoki portatila. Gurdian hartu eta hala joaten zen baserriz baserri herren zegoen ganadua perratzera. Oraindik ere perratoki portatilarekin aritzen da Roman, ilobari lagunduz. Goiko argazkian ikus daiteke Romanen perratokia.

Azkenik, 'Erremintariaren etxean zurezko aiztoa' esaera zaharra egia ote den galdetu diogu. Erantzuna, baiezkoa izan da.



ARANDIA
Garajea

LADA AUTOEN KONPONKETA
Ssang Yong
N-1, z/g Iurre Auzoa
943 88 09 47 OLABERRIA



Goierriko Akademia integrala
Interneten: Kontsultatu irakasleari
Beharrezko informazioa aurkitu
ikastekakademia@latinmail.com
http://usuarios.tripod.es/ikastek

Joan Iturralde, 5 943 160 120 BEASAIN

ESKOLA LAGUNTZA

- ✕ Gai eta maila guztiak
- ✕ Lehen Hezkuntza
- ✕ DBH, DBHO, Modulook
- ✕ Zikloak

GOIERRIKO UNIBERTISTATEA

- ✕ Marrazketa
- ✕ Matematika
- ✕ Fisika
- ✕ Teknologia

IKASKETA ARAZOAK

- ✕ Errendimendua
- ✕ Ohiturak, metodoak
- ✕ Atentzioa
- ✕ Emozioen kontrola

UNIBERTSITATE MAILA

- ✕ Enpresaritza
- ✓ Kontabilitatea, kalkulua
- ✓ Fakturazioa, estatistika
- ✓ Matematika (finantzieroa...)

ZINEA

GOIENIZ

Martxoak 21, 'Last Resort', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

ITSASONDO

Martxoak 8, 'Flores de otro mundo', Ertoetxen, 21:30ean.

Martxoak 15, 'Poderosa afrodita', Ertoetxen, 21:30ean.

Martxoak 22, 'Solas', Ertoetxen, 21:30ean.

LEGORRETA

Martxoak 14, 'El Padrino II', Herri Zineman, 20:30ean.

Martxoak 21, 'El Padrino III', Herri Zineman, 20:30ean.

antzerkia

BEASAIN:

Martxoak 10, Eskola antzerkia: Markeliñe taldearen 'Mambru' lana, Usurbe antzokian, 11:30ean.

Martxoak 13, Eskola antzerkia: Markeliñe taldearen 'La Garbo S.A.' lana, Usurbe antzokian, 11:30ean eta 21:00etan.

Martxoak 15, Eskola antzerkia: Gorakada taldearen 'Ahatetxo itsusia' lana, Usurbe antzokian, 11:30ean.

Martxoak 22, Maskarada taldearen 'Kontenedore baten istorioak', Usurbe antzokian, 22:15ean. Sarrera: 7 euro.

bertsoak

GABIRIA.

Martxoak 9, Aztiri saria (Osinalde sariketarako kanporaketa). Manex Agirre, Iñigo Izagirre, Alaitz Sarasola, Estitxu Eizagirre, Beñat Lizaso eta Egoitz Eizagirre. Aztiri bat elkartean, 8.30etan, bertso-afari-lehiaketa.

IDIAZABAL:

Martxoak 23, Axari saria (Osinalde sariketarako kanporaketa). Iñaki Gurrutxaga, Gorka Ostolaza, Jokin Uranga, Ekaitz Goikoetxea, Unai Muñoa eta Joseba Andoni Beltza. Axari elkartean, 8.30etan, bertso-afari-lehiaketa.

ORDIZIA:

Martxoak 16, Argi Berri saria (Osinalde sariketarako kanporaketa). Iker Zubeldia, Egoitz Zelaia, Jon Martin, Iñaki Apalategi, Eneritz Zabaleta eta Etxahun Lekue. Argi Berri elkartean, 8.30etan, bertso-afari-lehiaketa.

musika

BEASAIN:

Martxoak 24, Musika Eskolako abesbatzaren kontzertua, Parrokian, 20:00etan.

OLABERRIA:

Martxoak 9, Briganthya taldearen musika zeltiarra, Udal pilotalekuan.

ORDIZIA:

Martxoak 8, Asto Pituak, Leher, Spuriu eta Apartheid hil, Gaztetxean, 21:30ean.

Martxoak 9, Lif, Delhi considera eta Guda garaia, Gaztetxean, 21:30ean.

ZEGAMA:

Martxoak 12, Tobera Musika eskolako piano ikasleen kontzertua, Kultur etxean, 17:30ean.

Martxoak 21, Tobera Musika eskolako trikitixa eta pandero ikasleen kontzertua, Kultur etxean, 17:30ean.

ikusentzuneak

BEASAIN:

Martxoak 8, 'Hiru mendiak' Felipe Uriarteren eskutik, Aizkorri Mendizale Elkartean, 20:00etan.

Martxoak 13, 'Ordesako magia' Javier Fernandez eskutik, Aizkorri Mendizale Elkartean, 20:00etan.

Martxoak 22, 'Patagonia' Tomas Sarasolaren eskutik, Aizkorri Mendizale Elkartean, 20:00etan.

pailazoak

OLABERRIA:

Martxoak 9, Azkona taldeko Kiki, Koko eta Moko pailazoak, 16:30ean.

erakusketak

BEASAIN:

Irailaren 30era arte, Ars Lignae erakusketa, Igartza jauregian.

Martxoaren 15era arte, J.C. Nietoren pintura lanak, Aterpe tabernan.

Martxoaren 16tik apirilaren 6ra, Mamen donostiarraren argazki erakusketa, Aterpe tabernan.

Martxoan, Benito Canteroren argazkiak, Zinema Tabernan.

Martxoaren 10era arte, Asmubek eginiko ikastaroen lanak, Usurbe Antzokian.

Martxoaren 15etik 24a, Mendiko argazki lehiaketara aurkeztutako lanak, Usurbe Antzokian.

SEGURA:

Juan Gorritiren 'Baserriaren argia' erakusketa, Ardixarran.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Martxoak 9-10: Cuesta. (Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Martxoak 16-17: Atorrasagasti. (Bustuntza auzoa- Ordizia). 943 882938.

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

➡ Beasainen etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. 679556594.

➡ Goierriin txalet adosatua salgai. 150 m². Sukaldea jantzia, 2 logela, egongela, bainugela eta komuna, 2 autorentzako garajea, 250²ko lorategia. 30.500.000 pezeta. Mandio. 699936801.

➡ Ikaztegieta familia bakarreko etxea salgai. Sukaldea, egongela, 3 bainugela eta 3 logela. 50 m²ko garajea. 678240829.

➡ Idiazabalen pisua salgai. 91 m²koa. 609349630.

➡ Ordizian etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea jarrita eta egongela argitsua. 669400513.

➡ Beasainen 3 logelako etxebizitza salgai. Eguzkitsua eta alaia. 943027138. 20:00etatik aurrera deitu.

errentan

➡ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948539381.

➡ Astigarretan edo Mandubi inguruan txabola edo pisu txiki bat alokatuko (edo erosi) nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. 943886610.

Garajeak

errentan

➡ Bi garaje alokatzen dira Jose Lasa kaleko 5. zenbakian. Lur azpikoak. 943885574. Iluntzetan deitu.

salgai

➡ Zaldibian, Ostaturburu etxean, garajea salgai. Entreplantarekin eta urarekin. 94387827.

Bestelakoak

salgai

➡ Sutarako egurra salgai, 2 metrotan moztuta. 943880905.

➡ Poliesterezko deposituak salgai. 2.500 litro ingurukoak. Sagar-do edo antzekoentzat. 943801711.

➡ Bideo kamera salgai. Ordubete baino gutxira erabilia. Berritan 130.000 pezeta balio zuen; orain, 75.000. 660024835.

➡ Sutarako egurra salgai. Haritza eta haritz amerikarra. 0,03 euro edo 5 pezeta kiloko. 943887827. Zaldibia.

➡ Karabana salgai. Büstner 430. Oso egoera onean. Bi abantzeekin (udakoa eta negukoak). 21:00etatik aurrera deitu. Mikel (943887573).

➡ Comanche Puluma 3 modeloko gurdi kanpina salgai. Egoera onean eta prezio interesgarrian. 943889345. Unai.

➡ Zeus markako erre-pideko bizikleta salgai. Kanbioak manilarrean ditu. Ez erabiltzeagatik oso egoera onean. Bizikletan ibiltzeko zapatilak emango nituzte. 943800336 - 605720890. Arratsalde edo iluntzetan deitu.

➡ Ordenagailurako programak eta jokoak, bertan ikusteko pelikula (divx formatoan) eta Dreamcast-erako jokoak saltzen ditut oso prezio onean. Seriotasuna eta kalitatea. 658751318. josex52A--hotmail.com.

➡ Gas gas HusuQvarna salgai. 92. urtekoa. Matrikuladuna. 943885006.

➡ Sekadora besoekin eta tintearentzako baporea salgai. 50.000 pezetan. 943883180.

Animaliak

salgai

➡ Suitza arrazako behia salgai. Umea egiteko puntuan. 943683290.

opari

➡ Txakur polita opari, ezin zaintzeagatik: Siberian husky eta artzain txakurraren nahasketa. Begi bat urdina eta beste marroia. 609735132. Enrike.

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak filtroak, olioak, engrasea frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak harezko txorrotadak



Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



Inausti

HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 ZAKI KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

berriz aranburu

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

Ibilgailuak

salgai

➔ 50 c.c.ko Suzuki Katana markako motoa salgai. Bi urte ditu eta ondo zainduta dago. 649.14.28.35

➔ Honda CBR 600 motorra salgai. 92. urtekoa. Egoera onean. 636563841.

➔ Toledo TDI (110cv) salgai. 4 urte. 82.000 km. Extrekin. 653719224. Oso egoera onean. Beti garajejan egona.

➔ Volkswagen furgoneta salgai. Sukaldearekin eta ohearekin ekipatua. 620860285.

➔ Renault 19, 16 v. 140 zaldi, salgai. Urdina. SS-AN. 658701815.

➔ Mitsubishi Montero luzea, 2800 turbodiesela, salgai. 95. urtekoa. Ondo zaindua. 659422331.

➔ Hyunday coupe 1,6 16vi slgai. 1999. urtekoa. 1.350.000 pezetan. Extrak: eskiatzeko soportea, kate automatikoak, faldoiak, alarma, kristal-jasogailu elektrikoak, ispilu elektrikoak, itxiera zentralizatua... 686334037. Arratsaldean deitu.

Negozioa

salgai

➔ Jubilazioa dela eta, Ordizian taxi plaza salgai. 943 88 15 15.

Lana

eskaerak

➔ Beasainen neska euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943880845.

➔ Neska euskalduna behar da zerbitzari lanerako. 943655848.

➔ Pertsona euskalduna behar da tabernan astebukaeran lan egiteko. 943160205 - 943886577.

➔ Pertsona bat behar da Ordizian irekitzeaz dagoen elkarte batean garbiketa lanak egiteko. 943087275.

➔ Gitarrista behar da gaupasetako talde batean jotzeko. Esperientziaduna. 653734327. Oiane.

➔ Jatetxe baterako sukaldaria behar da. 943086505.

➔ Segurako Elorripe Herrikoan langile libe-ratua eta euskalduna behar da. 943801002.

➔ Larunbat gauetarako neska bat behar da sagardotegirako. Ez da beharrezkoa esperientziaduna izatea. 943887726.

eskaintzak

➔ Kamiolari autonomoa tailerretan lan egiteko prest dago. 4.000 kilo arte. 943801711.

➔ Gauetan pertsona nagusiei konpainia egiten lan egingo nuke, asistente moduan. Aina-ra. 943883379.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da astean zehar egunean pare bat ordu, garbiketa edo antzeko lanak egiteko. 619601111.

➔ Neska adiministrari gaztea prest dago sal-tzaile edo kamarera lana egiteko. 600323206.

➔ Etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko Ordiziako emakumea eskaintzen da. Orduka. 610901821.

➔ 24 urteko neska be-asaindarra, haurrak zaindu, dendari edo antzeko lanak egiteko prest dago, Beasain, Ordizia eta Lazkao inguruan. 687374559.

Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza

943 884 401

INSTALATZAILE ELEKTRIKOA

Goierriin. Erref. 73068/2

ZERBITZARIA

Goierriin.. Erref. 72831/4

DEKORATZAILEA

Goierriin. Erref. 71897/3

ADMINISTRARIA

Goierriin. Erref. 70634/4

KALDEREROA

Goierriin. Erref. 70607/3

GOZOTEGIKO 1. OFIZIALA

Goierriin. Erref. 68527/2

MEKANIKOA

Tolosan. Erref. 72829/4

3 LANGILE (Fabrikazio mekanikoa)

Tolosan. Erref. 72787/3

3 LANGILE (Fabrikazio mekanikoa)

Tolosan. Erref. 72717/3

EROSKETA AJENTEA

Andoainen. Erref. 72227/3

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKIA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordura: ☎ 629 45 20 53

Andra Mari, 13 beheak ez. - BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 BEASAIN
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 ORDIZIA

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN



Mutiloko eskolako neska koadrila, 1955ean

Behetik hasita, ezkerretik eskuinera: Manoli Agirrebengoa, Sakramento Caba, Mirentxu Goiburu, Felisa Goikoetxea, Juanita Goia, Juanita Aranburu, M. Ixabel Agirrebengoa,

Bigarren lerroan: Pakita Arakama, Antonia Murgiondo, Esperanza Egaña (irakaslea), Karmen Arrondo, M. Karmen Caba, M. Jesus Agirrebengoa, Ixabel Telleria,

Goiko lerroan: Luzia Insausti, Josefina Travado, Juanita Murgiondo, M. Karmen Baztarrika eta M. Jesus Azurmendi.

HAURRENTZAKO GAIAK

Arba kalea, 1 ORDIZIA
Tel.: 943 88 15 13

200m²-etan
aukera zabala:

Quinny
Arrue
Bebe-confort
Red Castle
Maxi-cosi
...



ONGI ETORRI taberna - jatetxea

Eguneroko menua
eguerdi eta gasetan
larundaitan ere bai

Afariak
bataioak
jazzaritzeak

Tel: 943 88 99 07
Oriamendi, 40 BEASAIN



F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN



Kale Nagusia, 38
 ☎ 943 80 53 11
 BEASAIN

ASTE SANTUA 2002



ESKIA

ASTE SANTUA

- ANDORRA 340 euro
- BAQUEIRA 305 euro

PAZKO ASTEA

- ANDORRA 270 euro
- ASTON/CANDANCHU 205 euro

ASTE SANTUA

HEGAZKINEZ

- PALMA 313 euro
- TENERIFE 536 euro
- LANZAROTE 584 euro
- LONDRES 405 euro
- ISTANBUL 424 euro
- ERROMA 518 euro
- PRAGA 495 euro

AUTOBUSEZ

- SEVILLA 317,20 euro
- RHIN (IBILBIDE ERROMANTIKOA) 312 euro
- TIROL 312 euro
- SUITZA 318 euro
- AMSTERDAM 264 euro
- VENEZIA 264 euro
- BRETAÑA 271,20 euro
- GALIZIA (RIAS ALTAS) 235,40 euro

PAZKO ASTEA

- MALLORCA 411 euro
- TENERIFE 354 euro
- LANZAROTE 450 euro
- ISTANBUL 411 euro



AZKEN ETXEBIZITZAK

Eragilea:

ARIN ERAIKUNTZAK S.L.

Informazioa eta Salmenta:

943- 49-38-73

Kalitatea

Diseinua

Paregabeko Ingurua

ETXEBIZITZA ADOSATUAK (SEGURAN)



arquimedia

hau da gure publizitaterik hoberena



publiadk